

Año LIII. urtea

132 - 2021

Uztaila-abendua
Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Oltzako aldaeraren inguruan

(1 – Arakilgo azpialdaera)

Koldo Artola

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 132. zk. - 2021

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Euskararen erritmoa neurtzen

Oroitz Jauregi 257

Egiarretako hiru eskuizkribu euskaraz (XVIII.-XIX. mendeen mugan)

Juan Madariaga Orbea, Jose Luis Erdozia Mauleon 279

Hizkuntza-tratamenduak *Dragoi Bolan*: hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna

Garbiñe Bereziartua, Beñat Muguruza 319

*Do It Yourself*etik planifikaziora.

Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak

Jone M. Hernández García, Ainara Santamaria Barinagarrementeria 349

Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan.

Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat

Ibon Egaña Etxeberria 375

Oltzako aldaeraren inguruan (1 – Arakilgo azpialdaera)

Koldo Artola 403

e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria

Jone Goirigolzarri Garaizar, Inazio Marko, Ibon Manterola 473

Karmele Jaioren *Aitaren etxearen* kritika kolektiboa eta feminista:

proposamen metodologiko berritzailea

Gema Lasarte, Andrea Perales-Fernández-de-Gamboa 497

Modalitate-markatzaileak: partikula modalak ote dira euskarazko

partikula modalak?

Sergio Monforte 515

Praktika eleanitzak eta euskara, ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean:

kasu-azterketa bat

Nerea Villabona, Mikel Gartziarena 543

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals 565

Oltzako aldaeraren inguruan

(1 – Arakilgo azpialdaera)

Acerca de la variedad de Olza (1 – Subvariedad de Arakil)

A look at the variety of Olza (1 – Sub-variety of Arakil)

Koldo Artola
Etnografia Saila-Aranzadi Zientzia Elkarte
kmartola@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv132.6>

Jasotze data: 2021/06/06. Behin-behineko onartze data: 2021/09/06. Behin betiko onartze data: 2021/10/19.

LABURPENA

Bonaparte printzeak, euskalkien sailkapena egin zuenean, Arakilgo azpi-aldaera (Murginduetako hizkera salbuetsirik) Oltza izenekoaren barruan kokatu zuen, jarraiko ibarretako hizkerekin batera: Oltza –jakina–, Goñibar, Itzako Zendea, Olloibar, Etxauri, Antsoain, Girgillao, Artazu eta Gesalazko zati bat, Jaitz udalerrria barne. Oltzako aldaera honi (Zizurko eta Gulibarkoek osatua) *ultra-pamplonés* deitu zion Bonapartek eta *hegoaldeko goi-nafarrera* deitu zuen euskalkiaren barruan kokatu. Arakil ibarreko Ihabar herriaz dugun informazioa, halere, bereizi egin dugu eta hurrengo saio baterako utzi.

Gako hitzak: hego-nafarrera; Oltzako aldaera (Arakilgo azpi-aldaera); euskal dialektologia.

RESUMEN

En la clasificación dialectal del príncipe Bonaparte, incluyó la subvariedad de Arakil (exceptuado el lugar de Murgindueteta) dentro de la variedad de Olza, juntamente con las de los siguientes valles: Olza, Goñi, Cendea de Iza, Ollo, Echauri, Ansoain, Guirguillano, Artazu y parte del de Guesalaz, además del municipio de Salinas de Oro. Esta variedad, junto con las de Cizur y Gulina, fue calificada por el príncipe como *subdialecto ultra-pamplonés*, dentro del dialecto *alto-navarro meridional*. La información relativa al pueblo de Yabar, sin embargo, la hemos dejado para una próxima entrega.

Palabras clave: euskera navarro meridional; variedad de Olza (subvariedad de Arakil); dialectología vasca.

ABSTRACT

In the Prince Bonaparte's dialectal classification, the subvariety of Arakil (except for Murgindueteta) was included inside the variety of Olza, together with the following valleys: Olza, Goñi, Cendea de Iza, Ollo, Echauri, Ansoain, Guirguillano, Artazu and parts of that of Guesalaz and the municipality of Salinas de Oro. This variety, together with that of Cizur and Gulina, was classified by the prince as the *ultra-pamplonés* sub-dialect within the Southern Upper-Navarrese. However, the information related to the village of Yabar will be presented in the next article.

Keywords: Southern Navarrese Basque; Olza variety (Arakil subvariety); Basque dialectology.

1. SARRERA LABURRA. 2. AURREKARIAK. 2.1. «Oltzako aldaera» izenburuaren balizko egokitasunaz bi hitz. 2.2. Datuen transkripzioarako oharrak. 2.3. Arakilgo eta Ihabarko azpialdaeren ezaugarri batzuk. 2.4. Saio honetako berriemaileen zerrenda. 3. URRITZOLA: JUAN BAUTISTA ETXARREN OTAMENDI. 3.1. Gai etnografikoak. 3.2. Era askotako ipuin eta ixtorioak. 3.3. Abere eta basapiztien ingurukoak. 3.4. Soldaduska-denborakoak. 3.5. Euskararekiko informazioa Arakil zein hurbil ibarretakoa. 4. EKAI: PEDRO BERJERA SASIAIN. 5. SATRUSTEGI. 5.1. Jesusa eta Josefa Ongai Huarte. 5.2. Juan Huarte Albisu. 5.3. José Miguel Goitia Madoz. 6. ETXEBERRI: CELESTINO ZUBILLAGA ETULAIN. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA LABURRA

Aldi honetan, Louis-Lucien Bonapartek *ultrapamplonés* azpieskalkiaren barruan *Oltza* izenez sailkatu zuen Arakilgo aldaerari egokituriko herri batzuetan iragan mendeko laurogeiko hamarkadan bildu genituen euskarazko lagin batzuk dakartzagu.

Orain arteko saioetan egin moduan, Bonapartek taxutu eta Pedro de Yrizarrek jarraipena emaniko sailkapenari lotu gatzazkio, datuak biltzen aritu ginen denboran hura buruan izan genuela –tematiegiak agian gu?–, nahiz eta azken urteetan ahots batzuk kritiko azaldu diren berarekin.

Saio honetan ageri diren herriak Urritzola, Ekai, Satrustegi eta Etxeberri dira, zeinetan, aise ikusiko denez, maila aski oneko zein pattaleko hiztunak –batzuk hondar-hondarrekoak– aurkitu genituen.

Ihabar herrian ere aurkitu genituen berriemaileak, baina haiengandik eskuraturikoa beste saio baterako utzi dugu, Yrizarrek 1992an argitaratu *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* lanean ikusi uste zituen ezaugarri edo berezitasun batzuk kontuan hartuz.

2. AURREKARIAK

Yrizarrek, arestian aipatu lanean (1992) eta, zehazki, Arakilgo azpialdaera ikertzean, zera idatzi zuen:

Por el examen de las formas verbales recogidas en Urrizola, Satrústegui (incluido el molino), Ecay, Echeverri y Eguiarreta (los datos de Zuazu son insuficientes para esta determinación), parece evidente que, con la excepción de Yábar (de Villanueva no tenemos datos) y de Murguinduetza, que fue incluido por Bonaparte en la variedad de Huarte-Araquil, del dialecto alto-navarro septentrional, procede incluir en esta subvariedad los restantes pueblos del municipio de Araquil. Por otra parte, las formas verbales de Ollo permiten conjeturar la pertenencia del valle de este nombre a la citada subvariedad.

En la «Introducción» de la variedad de Olza, se exponen algunas consideraciones referentes a las características lingüísticas de esta subvariedad.

El número de vascófonos oriundos de ella, en 1970-1972, sería, según nuestro recuento de aquella época, de alrededor de una veintena, todos ellos del valle de Araquil, pues en el valle de Ollo parece que no quedaba ninguno (579. or.).

Hona iritsi aurretik, baina, Yrizarrek berak (1992), *Subvariedad propia de la variedad de Olzari* eginiko sarreran, zera idatzia zuen, besteak beste:

Cuando, en 1975, obtuve del padre Francisco Irañeta, natural de Yábar, algunas formas verbales, me extrañó la presencia de la citada *-n* final, en las de pretérito. La incuestionable autoridad de Bonaparte, que incluyó el valle de Araquil (como también el de Ollo) en la variedad de Olza, de la que consideró representativas las conjugaciones de Olza y Goñi (ambas sin la citada *-n*) y, por otro lado, el hecho de que el padre Irañeta, de 80 años de edad en la época de la encuesta, había salido muy joven de su pueblo natal y probablemente apenas volvió, me llevó casi a dudar de que tales formas verbales representaran fielmente el habla de Yábar.

Por otra parte, fruto también de esa investigación de Artola, se ha llegado al conocimiento de que entre la zona oriental del valle de Araquil, que comprende la casi totalidad de los pueblos del valle, y la reducida zona occidental, que –con la exclusión de Murguinduetza– parece limitada al lugar de Yábar [de Villanueva no tenemos datos], hay diferencias que, a nuestro juicio, justifican el establecimiento de dos subvariedades: la propia de Araquil, que llamaremos simplemente de Araquil, y la de Yábar. La diferencia más señalada se encuentra en las flexiones intransitivas bipersonales. En la subvariedad de Araquil, las formas empleadas son del tipo *zaide*, *zaikie*, mientras que en la subvariedad de Yábar, se utilizan las del tipo *dakee*, *dakie* (494. or.)¹.

Gogoan hartzeko modukoa da orobat, gure ustez, pluraleko bigarren pertsona tartean dagoenean, zertu ohi diren laburketak. Hots, ‘zaizue’ eta ‘zaizkizue’ adizkiak *zaizite*, *zaizkizite* dira Urritzolan, eta *dakizite*, *dazkizite* Ihabarren.

1 Lan hau prestatzean ohartu garenez, Yrizarrek (1992) «Arakilgo azpibariatatea» deitu zuen esparru honen barruan ere ageri zaigu Nor-Nori saileko adizki horietarik bat, nekez izan arren: Ekaien, *dazki(-)* ez oso garbi bat; Satrustegin, tiraka ateratako *dakizu / dakio* pareak; eta Etxeberrin, *dazkizu*. Jakin nahi genuke beren fidagarritasuna zenbaterainokoa den, hau da, ea era hauetako batzuk Urritzolan bildu bezalakoeekin batera-edo erabiltzen ziren. Hiriberriko ekaietan, tamalez, horren inguruko adibiderik ez dago.

Baina bi herriotan berdin eman zizkiguten ‘duzue’ eta ‘dituzue’ erak: *duzte* eta *ttuzte*, alegia; bai eta ‘didazue’, ‘diozue’ eta ‘diguzue’ kasuetarako *deezte*, *diozte* eta *diguzte* ere.

Patxi Salaberri eta Ricardo Urrizolaren (2008) «Hiriberri Arakilgo predikuak» izenburuko lanean ere baditugu, hainbat datu jakingarriren artean, *batuzte* ‘badituzue’, *daukezte* ‘daukazue’ edota *ikus zazte* ‘ikus ezazue’ laginak, predikuak idatzi zituen apaizak Arakilgo mintzaira –eta ez horregatik bakarrik– ongi beretua zuela erakusten dutenak, hura bertakoa zenetz gauza ziurra ez izan arren².

Lehenagoko aldi batean, Gulibarko euskarari buruz aritu izan ginenean ere, Larunbe eta Zia herrietan pluraleko bigarren pertsona tartean dagoenean antzeko laburketak bildu zirela aipatu genuen. Orain, hari beretik, Ihabartik mendebalderantz bai Murgin-duetan, bai 1734 arte Arakilgo parte izan zen Irañetan ere bilduak izan direla esatea dagokigu, hau guztia Imotz ibarrean eta are Basaburuan aski zabalduriko ezaugarria dela ahantzi gabe.

2.1. «Oltzako aldaera» izenburuaren balizko egokitasunaz bi hitz

Orain urte batzuk, Iñaki Camino euskal filologian doktore denak Arakilgo mintzaira Oltzakoaren zakuan ez sartzeko moduko argudioak eman bazituen ere (Camino, 2005), duela gutxi arte hizkera hau ezezagun samartzat joa izan denez, uste izatekoa da bai saio honetan bai Ihabarko mintzairari eskainiko diogun hurrengoan ekarriko dugun datu-mordoa baliagarria izango zaiola eginkizun horretan dabilen zeinahi filologiari, saiootan azaleratuko laginak ahalik ongien aztertzeke.

Caminok aipatu hainbat ezaugarriren artean bada, agian modu berezi batez, gure arreta erakarri duen zerbait: iraganaldiko tokako era alokutiboak erakusten duen *-t-* morfema, alegia, Bonapartek *ultrapamplonés* deitu zuen esparru osoan ez, baina zenbait lekutan gutxi-gehiago erabiltzen zena³. ‘Hura niri’ eta ‘hura hari’ kasuetarako, adibidez, zera dugu Arakilen: *zai(ki)eten / zai(ki)oten* Urritzolan, eta *zakeeten / zakio-ten* Ihabarren. Horretarako, Oltza herrian zein Goñikoan, *zekideta* eta *zekiotan*.

‘Hark niri hura’ eta ‘nik hari hura’ kasuetarako, toketan halaber, honakoak bildu ziren: *zeeten* eta *nioten* Urritzolan eta Ihabarren; *zerete* eta *niote* Oltzan; eta *zereta* eta *niota* Goñin.

Hemendik hegoalderago ere, Garesko aldaeran zehazki, antzeko erak bildu ziren XIX. mendean, baina gure egunotan ez Irañetan, Ihabartik mendebaldera, ez Gulibarren, Urritzolatik ipar-ekialdera, ez ditugu horrelakoak ezagutu.

2 Yrizar 2004an hil zen. Ez zuen, beraz, Salaberri eta Urrizolak 2008an argitara eman zuten lana ikusi.

3 Oraingo esparru honetatik kanpo ere aski zabaldurik aurkitu dugu: Mezkiritz, Lintzoain, Erro eta Gurbizar herrietan (Erroibar), eta Usetxi, Leranotz eta Ezkiritz izenekoetan (Esteribar), gutxienez. Elkanon ere erabiltzen zen eta, gure egunotan, Aezkoa ibarrean indarrean dago.

Urritzolako berriemaileak, bestalde, aitaren aldetiko aitona Olloibarkoa izan zue-nak, berdin xamartzat jotzen zituen Arakilgo eta Olloibarko hizkerak. Iritzi hau, kon-tuan izateko modukoa bada ere, filologoen esan beharko dute zein neurritan den hori horrela.

2.2. Datuen transkripzioarako oharrak

Jarraian aipatuko ditugunak Arakilgo eta Ihabarko azpialdaerekin zerikusia duten datuak dira osoki, Arakildik kanpora ez baikenuen ezer aurkitu ahal izan Oltzako aldaera osatzen zuten ibarretan barrena.

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Azken horrek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean zer-nola jokatzeko zuten adierazteko hark berak idatziriko orrian⁴ zera irakur daitekeela: «Uriz: á, eá, ía, oá, úa», azken honen kasuan, *u*aren gainean eta tiletaren azpian, puntutxo bat ageri dela.

Soinu hau Artzibarko eta Erroibarko aldaeretatik Olaibarkora igarotzean desagertuz doa, Gaskuen bi aldiz eta Gelbentzun eta Ziaurritzen bana baizik ez baitugu hauteman, baina hemendik mendebalderantz ere, Txulapaingo Beorburun eta Arakilgo Urritzolan bederen –eta Ihabarren aldi batez ere bai–, sumatu dugu haren arrastoa.

Ia aditzen ez diren soinuak, honen aurreneko saioan egin bezala, parentesi artean idatzi ditugu. Zalantzagarrira iruditu zaigun hitzaren ondoan, parentesi arteko galdera-ikurra (?) idatzi dugu eta harridura sorrarazi digunaren alboan, berriz, harridura-ikurra (!). Halaber, pasarte ilun batzuk parentesien arteko eten-puntuak idatziz [...] ekidin ditugu.

Parentesi karratuak [] erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen ba-rruan tartekatuta dugunetan, hauetan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Beste kontu bat da galdera-ikurrena. Irakurlea ohartuko da, zeinu hori ohiko galde-retan jartzeaz gainera, berriemaileek zenbait esaldiri galdera-itxurako intonazioa eman dioten hainbat alditan ere erabili dugula.

Tildeak testu batzuetan –inoiz horietako zati soilen batean ere bai– markatu ditugu, duela ez aspaldiko gure ohiturari jarraikiz. Bi eratako azentuak erabili ditugu: indar edo intentsitate handikoa (´) bata, eta hori baino txikiagokoa (˘) bestea.

4 Ik. Pagola et al. (1996).

2.3. Arakilgo eta Ihabarko azpialdaeren ezaugarri batzuk

Oraingo aldi honetan Oltzako aldaerak bere barne hartzen dituen Arakil ibarreko azpialdaeren ezaugarri batzuen berri emango dugu. Ihabar herriko hiru laguni bildu genizkion solasaldiak beste saio baterako utzi baditugu ere, haietan zerturiko hainbat ezaugarri hona ekarri dugu, Arakilgo beste herrietan bildurikoekin batera. Gorago aipatu Arakilgo bi azpialdaeron arteko aditz ezberdintasunez landa, bion ezaugarri oso antzekoak deritzegu eta, hortaz, zer bereizi edo zer iruzkindu beharra ikusten dugunean aipatu egingen dugu halakoa zer eta non bildu den.

$E + a = \ddot{e}a$, ia dugu mintzaira honetan, ohiki, eta $o + a = \ddot{o}a$, ua .

$I + a = ie$ dugu, eta $u + a = ue$. Baina hau ez da gertatzen bokalok beren artean ukitzean bakarrik; elkarren jarraian doazen bi silaben parte izanez gero ere, bigarreanean den a bokala itxi egin ohi da e bihurtuz: *aite / aitte, egune, makille, lurre, ude...* eta are hitzen arteko muga gainditurik ere: *alki bet, zali betekin, trapu bet, ordu betes*, adibidez. Batzuetan $-ie$ eta $-ue$ horietako batzuk, gainera, $-i(i)$ edota $-u$ bihurturik dakuski, Urritzolan batez ere: *aundik* eta *aundiik, erdin, eultziin, tzerrii, estuk, lekuk, negun, ordun, seittun*⁵...

L / ll -ren eta n / \ddot{n} -ren arteko gorabeherei dagokienez, hauek bustita ikusten ditugu gehienetan: *abile, ga(i)ñe, illerra, larra(i)ñe, mutille, sorgiñe...* baina *Antsoaine, dotrine, ilebete, inexkeo, mine, xinestatu...* hitzak ere aditu ditugu.

T / tt -ren artekoa ere i baten ondotik gauzatzen da ohiki: *aittu (aitu ere bai), azpittik, bittertio, garbittu (garbitu ere bai), goitti eta beitti, itturri, marmitte, nunbaitt, oittea-mar, zerbaitt...* Urritzolan *itten* gehiagotan bildu dugu *iten* baino, baina bustigabeko hitz batzuk ere aditurik gaude: *beztitu, gelditu, txikitu...* kasu. Ihabarren, ordea, bustiak dira ia beti.

Bustidura horixe txikigarri batzuetan ere agertzen da: *aitte, puntte, ttiki (txiki ere bai), ttin-ttan...* baina aditz laguntzaileetan erruz: *ttut, ttuzu, ttu / tt(i)ot, tt(i)ozu, tt(i) o / nittuen, zittuen...* adibidez.

Tz dugu, inoiz, hitz batzuen hasieran, baina hemendik ekialderantz nozituriko neurrian ez, apalagoan baizik. Urritzolako testuetan, adibidez, *tzaku, tzakur, tzerrri* eta *tzukun* hitzak bildu ditugu eta, Egiarretan, *tzoratu*, baina Ihabarren, modu garbian, bat ere ez.

Tz dugu, orobat, ustezko arrazoirik gabe, hitz batzuen barnean, bokalen arteko z baten lekuan. Hona Urritzolan bildu batzuk: *betzela, gautze, gitzona, Litzarraga*; hona Ekaiko pareak: *itzen* (= ‘izen, izan’) eta *bitzitzen*. Hona Ihabarkoak: *batzoketen, gutzie,*

5 Joera hau (*amabi, amabiek > amabi(i)k*) berriemailearen amaren eraginari zor bide zaio, Araizko Azkaraten jaio eta bizi ondoren Larraungo Albiasun ere egona baitzen ezkondu aurretik. Izan ere, ustezko eragina inon agerikoa bada Urritzolako datuetan da, ez Ihabarkoetan.

itzein (= 'izein, izanen')... Haatik, aurkako kasurik ere bada, frikazioa dela eta: *erorzen*, *Irurzune*, *orza*, *perza*, *zorziko*... eta are, *t* erdizka baizik aditzen ez den zenbait hitz ere: *afal(t)zeko*, *bazkal(t)zeko*, *ebaki(t)zeko*... Segurtasunik ez, hortaz.

Zenbait lekutako *txo* txikigarria *tto* dugu Arakilen, inguruko hainbat lekutan bezala. Urritzolan, *alditto*, *aurtto*, *erritto*, *makiltto*, *umetto*... eta Ihabarren, *berotto*, *bultotto*, *kopatto*, *ttikitto*.

S / x txandaketa ere badugu inoiz, txikigarri gisa batzuetan: *aextian*, *aixe*, *aixkide*, *gaexti*, *ollaxko*, *xamur*, *xenda* eta *xoka*, adibidez.

X, gainera, indartzaile gisa, *aurrexeao*, *belaxe*, *bezelaixe*, *oixe*... hitzetan dugu Urri-zolan, eta *belixe(n)*, *bezelixe(n)* eta *olixe(n)* modukoetan, Ihabarren.

Z instrumentala *s* bihurtuta dakusagu maiz Arakilgo alderdi honetan; hona Urri-zolako lagin batzuk: *aldis*, *berandunas*, *egunes*, *erderas*, *jendes*, *nearres*, *ordueskeos*; hona Ihabarkoak: *aldis*, *beis* 'berriz' (Satrustegin ere bai), *egunes*, *eskus*, *euskeras*, *puntes*, *zures*. Hori ez da beti horrela gertatzen, baina.

Z, berriz, *x* bihurtuta hainbat hitzen era adierazkorretan. Urritzolan, *gaixki*, *kaxkala*, *moxkortu* eta *pixke* ditugu, besteak beste; Ekain, *koxkor*; eta Ihabarren, *Aitexarko*, *arixko*, *lenbixko / lemixko*, *koxkor*, *pixke*, *xentimo*.

J eta *y* fonemen arteko lehiarik ez da Arakil ibarreko inon agertzen, *j* baitugu beti inolako salbuespenik gabe: *jabe*, *jai*, *jaio*, *jaitsi / jetxi*, *jaio*, *jakin*, *jan*, *jantzi*, *jarri*, *jaun*, *jeki / jeiki*, *jende*, *jo*, *joan / juan / jun*, *jokatu*, *joku*, *josi*, *juntatu*⁶... Ekaiko berriemaileari *yan* (*jan* ere bai) eta *yoan* bildu izana bera bizi zen Atezko mintzairaren eraginari zor dakioko ziurrenik. Ekaiko beste lagun bati, haatik, *fan / faten* erabiltzen aditu genion, *juan* erabilia ere.

Y epentetikoa, ordea, ez da arraroa Arakilen: *biyek*, *erriye*, *euriye*, *feriye*, *gariye*, *guziye* eta *zerbitzeiye* bildu da Urritzolan; *aziye* eta *biyar* Ekain; *ardiye* eta *idiye* Satrustegin; *biyek*, *josiya*, *txikiye* eta *zakiyen* Ihabarren. Herri honetako berriemaile nagusiak aipatu hitzok eman arren, bestelako iritzia zuen nonbait: *t'Irinten e bai*, *ta guk 'idiek'*, *ta aiek 'idiyek'*. Datuak hona ekartzean, baina, zalantzak izan ditugu maiz, noiz *aiek* noiz *ayek* idatzi, noiz *beie* noiz *beye*... aldian-aldian ustezko pertzepzioaren arabera hautua eginez.

6 Hau ez dator bat Jose Mari Satrustegik (1981) aurkeztu sermoietan islatzen denarekin, horietan *yan*, *yarri*, *yequi*... gisako era ydunak baititugu. Eta besterik ere bada: *-rat* atzizkidun hitzak: *atariarat* eta *elizarat*, edota *-one* bukaeradunak: *tentacione*, *veneracione*, *proporcione*... hain nola ezaugarri desberdin askotako hitzak, ez ditugu ibar honetan sekula aditu. Satrustegik asmatu egin zuen Arruazu aldekoak omen ziren prediku batzuen artean horiek bereizi eta beren ekialderanzko joera usaitzean, baina ez zaigu iruditzen horietan islatzen den mintzaira Arakilgoa denik; hots, Oltzako beste azpialdaeraren bati egotz lekiokkeen aztertu beharko litzateke.

U eta *i* bokalerdi tinkatuak nekez dakuskigu herri hauetan. Urritzolan *gaube* / *gabia* eta *subea* dugu eta Ihabarren *sube* eta *zarrastakoba*, alde batetik, eta *oligo*, *ligo* (*liyo* ere bai), bestetik. Gainera, *g* / *b* txandaketa agerian dugu noizean behin: *ba(g)e*, *burdi*, *obi*, *obei* eta *sube*, gutxienez. Ihabarren, halaber, *iote* / *iyote* eta *igende* / *iyende* aldaerak ditugu, *iyendure*⁷ *bitxiaz* gainera.

Bat zenbatzailea, zenbait aldiz, mugaturik dagoen adjektiboaren aurrera igarota dakusagu Urritzolan: *alki bet aundie* / *afari bet eerra* / *maixtru et ona*... baina Ihabarko ekaietan ez dugu era horretako laginik.

Intentsitatea adierazteko, hitz baten errepikapena, mugatua bera, ohikoa izaten da: *erdi-erdie*, *gorri-gorrie* eta *txuri-txurie* laginak ditugu Urritzolan; *zabal-zabala* Ekain; *epel-epela* Satrustegin; *juxto-juxtoa*, *fin-fiñe* eta *lodi-lodie* Ihabarren. Urritzolan mugatu gabekorik ere bildurik gaude: *juxto-juxto* eta *lodi-lodi*; eta Satrustegin *xuabe-xuabe*.

Sinkopak ohikoak dira inguru hauetako mintzairetan: *arpatu*, *atra* (*atera* / *atea* ere bai), *barna*, *bedratzi*, *bela* ‘berehala’, *bigarna*, *borbilla*, *euntan* ‘egunetan’, *Irinte* ‘Irañeta’, *olixko* ‘holaxeko’, *orgatik*, *pastu* (*pasatu* ere bai)... Ekaiko berriemaileari *txaplatsa* ‘cernícalo’ bildu genion eta Satrustegiko bati *meindria* eta *Trexarena*, herriko etxe baten izena.

Sandhiak ez ditugu beste hainbat esparrutan bezain orokortuta aurkitu, ohikoak diren kasu batzuetan gauzatu gabe agertzen baitira. Hona, halere, batzuk: *k + g > zu koratzen* (baina *biok giñen*); *l + z > il tzute* (baina *il zittu*); *n + z > saten tzuén* (baina *itten zuten*); *r + z > jar tzen* (baina *bear ziñuen*); *t + d > baite, baitao*; *t + n > bainuen*; *t + z > baitzen* (*baizen* ere bai); *z + b > expaitu* (*ez baitu* ere bai); *z + d > eztaitt, eztena* (*ez dena* ere bai); *z + g > egiñakien* (*ez giñuen* ere bai); *z + n > enuen* (*ez nun* ere bai); *z + z > etzen* (*ez zen* ere bai)... Indefinizio handi xamarra, beraz.

Aferesiak ere ohikoak dira inguru honetan guztian, aditzetan bereziki: *baki*, *in*, *karri*, *kusi*, *makume*, *man*, *men* ‘omen’, *san*, *torri*, *zautu*... eta, agian, baita *akusi* ‘erakutsi > eakutsi’ eta *aman* ‘eraman > eaman’ gisakoetan ere, Urritzolan eta Ihabarren *ikasi* / *ikesi* aditu dugun arren. Urritzola eta Egiarretako datuetan, ordea, aurkako norabidean, *ekea* / *ekia* dakusagu.

Aditzak ohiko partizipiorik gabe dakuskigu noiznahi: Urritzolan, *tor nitzen*, *ibil tze* eta *parti tzue*; Ekain, *etor tzaa* eta *ibil tzeen*; eta Ihabarren, *as nitzen*, *ikes nuen* eta *jar tzen*, adibidez.

Aditz zaharrak, geroaldia gauzatzeko, *-(e)ko* etorkizuneko atzizkiak baliatzen dira ohiki ibar honetan: *(e)inko*, *eonko*, *eranko*, *esanko*, *janko*, *joanko*, *manko*, eta baita *-(r)en* delakoaz ere: *esaen*, *faen*, *izaen*, *jaen*, *joaen* / *juain*. Batzuetan, horietako batzuei

7 Ihabarko berriemaileari hitz honen esanahiaz galdeturik, gazt. *el restañu* erantzun zuen.

(*main* ‘emanen’ edo *izein* ‘izanen’ gisakoei, adibidez), bigarren atzizki bat eransten zaie: *mainko* / *maingo* edota *izeinko* / *izeingo*, herskari gor eta ozenak nolanhika nahasiz.

Aditz laguntzailea bere aurreko baldintza-partikulari eransten zaionean, murrizturik dakusagu maiz. Urritzolan, esaterako, *baut*, *bauzu*, *bauk* eta *baute* adibideak ditugu, eta Ihabarren, *bietzu*, *beutzu* (‘behar duzu’), *biuzte* (‘behar duzue’) eta *nauzu* (‘nahi duzu’). Ihabarren, halaber, laguntzaile horren aurretik ‘behar’ hitza doanean, hitz horren azken hizkia galdu egiten da ia beti: *bie giñuen*, *bia zen*, *bie duzu*, *bia zuen*... adibidez.

Aditz laguntzaileen iraganaldiko bukaerak *n* morfemaz gabeturik ditugu noiznahi Urritzolan, eta, Ihabarren ere, ez gutxitan, bertako berriemaileek, Yrizarrentzat galdekatu genituenean, erantzunak oro *n*-dunak eman bazituzten ere. Urritzolako aditz iragankorrean, adibidez, *nu*, *nun*, *nue*, *nuen* dakuskigu singularreko lehen personan; *zu*, *zun*, *zue*, *zuen* hirugarrenean; eta *giñu*, *giñun*, *giñue*, *giñuen* pluraleko lehenean, iragangaitzeko adizkietan *n* gabeko bukaerak bakanagoak badira ere. Ihabarko kasuan, *zun* / *zuen* eta *giñun* / *giñuen* pareez gainera, *n* galduriko iraganeko lagin batzuk bildu genituen: *ze*, *giñe*, *zee*, *zue*, *zute*... Satrustegi eta Ekaiko laginetan, azkenik, *n* gabeko adibide bat edo beste aurkitu dugu.

Aditza, bestalde, ‘egin’ bitartekoa dela, indarturik dakusagu maiz Arakilen. Hona Urritzolako lagin batzuk: *irabazi itten tzu*, *busti itten tzaikion*, *partittu itten dute*; hona Ihabarkoak: *egosi itten tzen*, *eskapatu itten giñen*, *lertu itten tzuten*. Joera hau, Sakana osoan eta ipar aldeko ibar batzuetan ere –Larraun, Imotz, Atetz...– ohikoa dena, Gulibarko Zian ezagutu dugu orobat, baina ez Larunben, ez eta alboko Txulapainen ere.

Partizipio burutuetan *-(r)ik* izan ohi da bukaera: *artuik*, *jarriik*, *lotuik*, *tapatuik*, *sartuik*... baina *-ta* ere bada artean: *aztuta*, *ilda*, *juanta*, *pasatuta*... gehienetan, asimilazioa dela-eta, *-te* itxurapean: *artute*, *galdute*, *lotute*, *pastute*... adibidez. Ihabarren, baina, bukaera horiek *-t(u)ik* aditzen dira ia beti, eta Urritzolan ere ez gutxitan; hots, *u* bokala apenas aditzen da, eta antzeko zerbait gertatzen da ‘batzuek’ hitzarekin, *batzek* baitugu ohiki, are Ekain ere.

Partizipioa aipatu dugunez, bestalde, agian bera indartu nahi izanez edo, maiz beharrik gabeko *-tu* batez (edo *-du* bere kasuan) gehiturik azaltzen zaigu Urritzolan: *ateatu*, *egondu* (Ekain eta Ihabarren ere bai), *ildu*, *izendu*, *ibilttu*, *jarrittu* eta *jasotu*; Ihabarren *bildutu*, *erretu* eta *izendu* bildurik daude eta Egiarretan *eukittu* eta *izandu*.

Aginterako adizki bat ahoskatzeko modua, *gatxazu*, *gatxaluze*⁸ (‘gaitzazu’, ‘gaitzazula’) Arakilgo Ihabarren bildu dugu bakarrik, baina Hiriberriko predikuetan ere ageri da: *sostenitu gachan* / *ezgachala*, eta halako bat bildurik gaude halaber Gulibarko Zian, otoitz baten testuinguruan betiere. Duela ez asko aipatu izan dugu era horretako ahoskera, Olaibarko aldaerari buruz aritu ginenean.

8 *Gatxazuletik* etorria, metatesi nabaria dela medio.

Aditza dela-eta Bonaparte printzeak *hegoaldeko goi-nafarrera* deitu zuen euskalkiaren esparruan –horren barne kokatu zuen esku artean dugun aldaera hau– duela berrogei urte inguru aurkitu genituen euskal hiztunek ordezkatu egiten zituzten, ia salbuespenik gabe, garai bateko ‘nor-nork’ saileko aditz bipertsonalak⁹, horretarako desegokiak diren ‘nori-nor-nork’ gisako tripertsonalak baliatuz. Hori esparruaren ekialdetik mendebalderaino somatu dugu, Artzibartik honaino. Yrizarrek zertzelada honetaz ohartarazi zigun Oltzako aldaeraz idatzi zuenean:

Según las anotaciones de Bonaparte, en lugar de las flexiones transitivas bipersonales propias de las columnas 1^a, 2^a, 4^a y 5^a, empleaban en Olza, impropriamente, las flexiones tripersonales correlativas, uso éste generalizado en el dialecto alto-navarro meridional. Véanse las observaciones a las flexiones de Egüés. Sin embargo, en los sermones de Ororbia (Como también en otros de esta zona y en el «Via Crucis») se utilizan las flexiones bipersonales propias (Yrizar, 1992, 514. or.).

Singularreko hirugarren pertsonako ‘hura’ erakuslea *ore* dugu hemen askotan, batzuetan ‘hori’ ote den iruditzen bazaigu ere, Gulibar-Txulapain inguruan bilduriko datuak orri hauetara ekartzean iruzkindu genuen bezala.

Aldaera honetan, alboko Gulibarkoan eta honen ekialderanzkoetan ez bezala, *-t(z)era* aditz-izena nekez gauzatzen da. Dugun adibide bakarra –jakingarria, agian, bildua izan den herriaren kokapenagatik– Ihabarkoa da: *ez giñuen uzten erretzea*. Hiriberriko predikuetan bada halere: *ezgachala uzi tentacioan egoztera*, alde batetik, eta *sostenitu gachan uzi gabe izulcera berris becatore*, bestetik.

-ki sozietiboa, batzuetan *-n* batez gehitua dakusagu. Hots, Urritzolan, *bateki*, *betzuki* eta *neskameaki* hitzez gainera, *amakin*, *autsekin* eta *iriñekin* ditugu, eta, Ihabarren, *aieki*, *aiteki gorrieki*, *loieki* eta *mutilleki* adibidez gain, *aiekin*, *aitekin*, *arriekin*, *batekin* eta *eskuekin*. Zalantzak izan ditugu maiz, noiz bai noiz ez, hona ekartzean. Hiriberriko predikuetan, *n* gabekoak dira guztiak: *deseyoaqui*, *edertasunequi*, *eguiescuaqui*...

Gulibarren ingurutik ekialderantz ohikoa den denborazko *-(e)larik* menderagailua Urritzolan bai: *zaiolaik*, *delarik*, *nitzelaik*, *zelarik*... baina Ihabarren ez dugu entzun, herri honetan *-(e)nean* baitugu beti: *denean*, *etzuketenean*, *giñuenean*, *nozkenean*, *zutenean*...

Bait- kausazkoa ez da bitxia Arakilen. Urritzolako laginetan *baita / baite*, *baitu*, *baittu*, *baitzen* ageri zaizkigu, eta Ihabarren, *baizeen / baitzeen* eta *baitao*, inoiz, horretarako agian, *zeengatik* edo *zergatik* batez baliatu badira ere. Hona Urritzolako esaldia: *zeengatik, makumeak, beek jakinko zuten nola*. Hona Ihabarkoa: *zergatik ez giñakien erderas*.

Bokalez amaitu hitz baten ondoan *bat* zenbakia doanean, hau bere lehen hizkiaz gabeturik kausitzen dugu usu. Urritzolan, *kuadrille at*, *maixtru et* eta *makume at* dugu, eta Ihabarren *esku et*, *iltze at* eta *ero at*.

9 XVII. mendeko Urritzolako olerki batean zera dugu: *Marabille ortara zerc ecarri zaitu?* (Satrustegi, 1987).

Eu diptongoa *au* bilakaturik aurkitu dugu hainbat hitzetan. Hona Ihabarko batzuk: *auli*, *aun* ‘100’ (Satrustegin ere bai), *aundo* ‘egundo’, *aune* ‘ehune, oihala’ (eta *aunbarako*, *auntzelia*), *auntzi* ‘euntzi, eultzi’, *aurie* (hau Egiarretan ere bai), *daus* (Satrustegin eta Urritzolan bezala, baina Egiarretan *deus*), eta *laurri* (Urritzolan *leurri*). Urritzolan, gainera, *aune* eta *auskal* hitzak hauteman ditugu.

Ai > *ei* badugu orobat Arakil honetan. Urritzolan, *bakotxei*, *eixkora*, *ezteit* ‘ez dakit’, *yeiz*, *zeleik*; Ekain, *beizik*, *meistru*, *meiz*, *ge(i)xto* eta, agian, *gezki* (Egiarretan, ordea, Larraungo Madotzen azpian, *amika* eta *amiru*); Satrustegin, *jei*, *ge(i)ñean*, *geixki* eta *meinderie* / *minderie*; eta, Ihabarren, *beleixe*, *bezeleixe*, *epeize* eta *orei(n)*.

Ei > *ai* alderantzizko joera ere bada, baina; Ihabar honexetan jarraiko laginak ditugu: *bain*, *bai* ‘behi’, *baizai* / *baizei* ‘behizai’, *aizi* (hau Urritzola-Egiarretan bezala), *erain*, *gaigo* (*erein* eta *geigo* ere bai), *laio*, *ta(i)lletue*... Gainera, arestiko *baizei* hitzean, bi joerok ageri dira.

Au > *o* dugu Ihabarren bildu genituen ‘eduki’ aditzetiko adibide orotan: *doket*, *noken*, *giñoken*, *zokete(n)*... Urritzolakoetan *au* hori bere horretan aurkiturik ere: *dauket*, *giñauken*, *nauken* (*noken* ere bai), *zauketen*. Ihabarren, orobat, *iote*, *ondie* eta *orpegie* aditurik gaude inoiz. Satrustegin *dokau* eta *eztokela* dugu eta, Ekain, *dode* eta *iolatzeko* ‘iraultzeko’, baina Egiarretan, Urritzolatik hurbil, *badauke*. Ihabar-Egiarretan, azkenik, *arrotze*; eta Urritzolan *arroltze*.

Singularrean mugaturiko hitzek, genitiboa hartzean, atzizkiaren laburketa pairatzen dute, Hots, ‘amaren’, ‘Aitexarkoaren’, ‘Amezketaren’, ‘labanaren’, ‘lihoaren’ eta ‘usoaren’ hitzak, *aman*, *Aitexarkoan*, *Amezketan*, *labanan*, *liguan* eta *usoan* bihurtzen dira.

Adlatibo kasuan dauden adberbioak direla-eta, Arakilgo laginak, lehenagoko beste saio batean, Gulibarren jada ikusi uste izan genuen mendebalderanzko joerari segida emanez-edo, *onea*, *orrea* eta *ara* / *arara* / *aera* ditugu.

Ustez honekin loturik, bokalarteko *r* samurra galdurik dakusagu hainbat adibidetan: *Afrikaa*, *Erromaa*, *gea* / *gaa* / *ga*, *ikastolaa*, (*i*)*kustea* aditurik gaude Urritzolan; *gaa* eta *zaa* Ekain; eta *denea*, *elizea*, *errekaa* eta *festaa* Ihabarren, besteak beste.

-tik ablatiboa *-ti* dugu, aldi batzuetan, Urritzolan: *atzeti*, *Beteluti*, *egieti*, *eskuti*, *itxeti*, *soldauti*... baina era osoa baino askoz gutxiagotan. Ibarren beste aldean, Satrustegin eta Ihabarren ere, *-tik* bukaera ongi samar mantendu da, ia salbuespenik gabe.

-tatic / *-ta(r)ik* bukaeren kontuak, Arakilgo ibar honetan, Gulibarko hizkerarekiko saioan ikusi uste izan genuen joera berari jarraikiz, *ontatik*, *artatik*, *oietatik*, *aietatik*, *denetatik*, *guztietatik*... laginak baizik ez ditugu. Hiriberriko predikue-tan, ordea, bukaerako *k* guztiak galdurik daude: *artati*, *auetati*, *gucietati*, *ocasio-tati*...

-*(r)ik + an* agerikoa da batzuetan; *atzetiken, beteiken, gelditzeatikan, jendeikan, oeindiken, ortikan, pekaturikan* (eliz kanta batean txertatua), *zinziliken...* Hiriberriko predikuetan ere badira: *baiciquen, besteriquen, cergatiquen...* Gulibar-Txulapainen suertatu legez.

Duela berrogei urte inguru Maria Mercedes Idoyk Izurdiagan burutu zuen lan etnografikoan (1980-81) ageri diren euskarazko hitzak ez ditugu hona ekarri, Arakilgoak ez direlakoan. Izan ere, bere berriemaileetan euskalduna bide zen bakarra aspaldi bertaraturiko andre lakuntzar bat izan zen, *arrantzia, besukozkor, idergiye, okana* eta *txube* hitzak erabili zituena, Uhartetik mendebaldera baizik aditzen ez direnak.

Aldiz, Egiarreta herrian, 1981ean, Mikel Elbira adiskide genuenak eta biok bildu genuen zenbait datu bai, ekarri dugu. Berriemailea 1906an sortu Jose Lazkoz Goñi izan zen eta emaitzak, lehenik, *EAEL II* (197. testua) eta, geroago, *Ziorditik Uztarrozera* izeneko lanean (2014) agertu ziren.

Eta, bukatze aldera, zer azpimarratu gehiagorik badagoela iruditu zaigunean, halakoa oin-ohar bidez egin dugula esatea dagokigu, gure ahaleginean hainbat ezaugarri aipatu gabe geratu zaigula jakinda.

2.4. Saio honetako berriemaileen zerrenda

Urritzola

Juan Bautista Etxarren Otamendi, 1900

aita: Urritzola / ama: Azkarate (Araitz)

Ekai

Pedro Berjera Sasiain, 1895

aita: Ekai / ama: Arruazu

Satrustegi

Jesusa Ongai Huarte, 1906

eta

Josefa Ongai Huarte, 1910

aita: Satrustegi / ama: Irañeta

Juan Huarte Albisu, 1916

ama: Satrustegi / aita: Ihabar

José Miguel Goitia Madoz, 1906

ama: Satrustegiko errota / aita: Aizkorbe

Etxeberri

Celestino Zubillaga Etulain, 1927

aita: Etxeberri / ama: Urritzola (Ultzama)

3. URRITZOLA: JUAN BAUTISTA ETXARREN OTAMENDI

Sarrerako galdera (1980)

– Hemen, nola erabiltzen duzue? ‘esan’ edo ‘erran’?
‘Erran’ or... itten da, Imotz alde ortan; emen ‘esan’, bai.

1980-91eko epean maiz galdekatu genuen berriemailearen erantzunak era askotakoak izan zirenez, horiek, neurri batean bada ere, gaika bildu ditugu irakurleak denbora guztiz gai batetik bestera jauzika ibili behar izan ez dezan. Testuak, betiere jasoak izan ziren orden kronologikoan ageri direnak, bost talde nagusitan bildu ditugu: 1) Gai etnografikoak; 2) Era askotako ipuin eta ixtorioak; 3) Abere eta basapiztien ingurukoak; 4) Soldaduska-denborakoak; eta 5) Euskararekiko informazioa, Arakil zein hurbil ibarretakoa.

3.1. Gai etnografikoak

Talogintzaz zerbait, laburki kontatua (1980)

Ba, lenbixiko? sue prestatu ta, autsa kendu, ta txapa arren, txapa gorri-gorri jartzen den garaian? bota masa, maitzen, maize-iriñekin iñeköa, ta atzala iñ artio? an iruki, ta geo, azala itten tzaiolaik? autsekin tapatu, ta ya, goratzen [...] pixkuat? kendu ta jan.

Gaztagintzaren ingurukoak (1980)¹⁰

– Lehen esan duzu gazta ez duzula egin, baina...

Ez-ez-ez, ez; gazta? ne amak iten tzun; igual, iru-lau bei-esnëakin? ta [...], iten tzun gazta, beño... kontinuo ez, itxeako, iru-lau gazta itten zittun? ta, kapritxo at.

– Eta ikusi duzu egiten?

Bai; lenbixko, esnea kendu? ta sukeldea eman, ta marmitte aundi betean, bi, bi o iru litro. Ta geo, amak iten tzun? pixuri (?) badute ola, ‘sueru’ saten diote. Ori? farmazietan izeten da suero ori.

– ‘Kuajoa’?

Kuajoa; koajo, puskuakin asi itten tzen? ta, esne oi? jun dien bezela gañen gañea, bilduik gelditzen tzen, or bilduik. Ta, gero? ur oe kendu? ta botatzen tzuten, beste... untzi txiki betea. Untzi arrek zittun txulo atzuk, ta, ore? al tzimiztu, ordubete igual pasten tzun gue amak, estutzen, ta, txulo aietatik, ur tanta guztiek juaten tzaizkio(n). Ta, gue orturiäk biltzen tzeen garaian? gu gero, ol bat jar tzen txiribien (?), ta marrubiek karri? te, lau-bost eunes? ta, gorri-gorriek jartzen tzeen, ta ja comer!

Beño gauze errexa zen, gazta ittea; oin, makinek sortu ittute, ta aski da, arrea bota-tzea, esnean, biar d’ondorian? kuajetu ondorian? ara bota ta, makiñekin estutu? ta, ur guztie, ure kendu in bear tzaio, ur guztie, gaztai. Esne arrei? ezpazenu kentzen, gazta txarra.

– Eta ur horrekin zer egiten da?

10 Gai honi buruzko beste testu bat 1990an argitaratu zen (EAEL II, 198. test.).

Ur oi? zerrien... alimentu aundie dute; zerrikume guztiek? askok kasu itten tzute.

– Batzuek esaten dute hartaz egiten dela gaztanbera edo...

Bäi tt'ere! requesón, bai; beño, emen ez. Esnie, suero oi? tzerrikumeai maten giñon, Ta ¿prueba de ello? gazta ayek, Andimendin ta [...], ta betik, Andimendin? zer ikutu eo gazte kuadrille at, t'eamaten tzuten, ori aprobetxatzeko, bai; or zerbait e zen. Ta, ttikiek giñela, guk, txikik? amai nondik artuko oitik, pixkat gaztatik ta, jo! Geo, gazta in ondorian, mintzen da pìxko at, beño, gazta in beño lenao? oso gotxoa zen; mamie, aittu zu mamiä? ¡muy bien hecha!

Zerri-hiltzeaz eta txerrikumeez zerbait (1980)

– Eta matatxerria noiz egiten da hemen? otsailean edo...

Ez, ez, negun, neguen, Urteberri inguru, bai. Oben-obena, abendun azkena? ta, eneroan, eneroan? febreröa. Izotza ta itten dun, denboa gogorra da orai, denboa berbeaki [...]. Be! denboakin... akabo, beño, Miguel, Miguel orrek? nik beño mille aldiz argi geigo emaingo izu, maingo dizu.

– Bai, baina oso kontentu nago hemen. Eta konta dezakezu nola hiltzen den txerria eta zer egiten den hartaz-eta?

A! ba, lenbixiko gizendu in bear da, bai. Gizen-gizen jartzen delaik? abixetzen da gizon bat, ortan ibiltzen den gizon bat, 'mataletxona' esaten diote, bai. Ta, tortzen dee? ta, goizëan? lau-bos... lau, bost, gizon... juntatu? eldu tzerrii? alki bet aundin... gañen jarri? ta, emakome at? odol artzen, ta...

– Nora biltzen du odola?

Bañera batea.

– Palangana edo...

Bai, palangana aundi betea... ta, an bildu?

– Eta hiltzeko? zerbait sartzen diote...

Labana!

– Nondik?

Zintzurrun ondo-ondoti; an pipiek bezela badute? antxetik, ta, ya kasi biotzea; kasi bi kanalak artu? ta biotzea juaten da; ta askotan, gizona apuretu ta, makurtzen tzaio? eta, tras! biotza ukitzen badio? zerrie bertan, bertan gelditzen da, ta odola, erdien! barnen gelditzen tzaio, beño ongi itten badu odola? iltzea kostatzen tzaio, beño beti! odola botatzen balinba.

Tti, diferentzien ere azkundie dao, gizonan eskuti; batzuk apurtzen¹¹ dee, ta zas! il bela, beño? odola barne geldittu. Ta gero, odol oi, geo? barrengo... giarre atzuk, kentzen diote, goizian, ta, beste gañeakoa prestatzen ai geala? makomëak... gosarie, 'gosarie' saten men tzaio, 'almuerzo', prestatzen dute, ta, geo? geo tximildu itten da're, kalparra? erre in [...].

– Kalpar horrekin, zer egiten da'.

11 *Apuretzen*, antza.

Kalparra? erre itten tzaio, ta geo? busti, erre ondorean? eerki busti... zerrie. Ta, geo? labana pastu, bizerra itteko bezelaixe, dena, ta kelditten¹² da? bate, illik gabe. Ta geo, arratsaldëan, arratsaldeañ? zilintzika jarri? ta sekatzan.

– Nola jarri?

Zilintzikan, makil luze betzueki? ta, zutik betzela, ta odol tanta guztiek? juaten tzaizkio ta sekatzan da, ta geo, arratsaldean? txikitu, ta, puske atzuk?... pernillek esaten diogu, azpiek, zilintzekan jartzeko; beste puxka atzu? tzea itteko: birike, birikek, txorizoa ta, bai, birike ta longanizek eta saten duu, bai. Ta, beste... puske atzuk baittu, beste atzu, bixkerrean: lomuek; ayek, batzuk, sekatu? ta illuntzikan jartze'ittete, jartzen dittute. Beste atzu, pusketu ta, eltzetan kontserba; tzerrin gauzeik obena? ori, oiek dee, lomuek, bai, bai. Ta... geo afaldu, gazta, gau, lan guztie itten d'ondorean? afari beterra? tti arrai pixkuat eta kartzen da? bariatzeko? ta, gau e(e)rra pasten da.

– Eta odolarekin...

Odolaki? tripotak.

– Nork egiten ditu?

Emakumeak.

– A! goizean, bai, palangana horretan...

Bai, ta gañea... odolkiek, eso. Ta, nasten tzaio bai, gizen puske atzuk e bai, puske txiki betzuk? piketu ederki...

– Gizen? puska batzuk?

Bai, kizenak, gordurek, bai, ta estean sartu? tira! ta... beste pusk oyek? txorizoa ite-köa? badu makine e; pusk et sartu makine artan? ta, txeatu izeten da, ta, estea... tubo at bezela badu? ta tubo artan estea jarri? ta, pedalai man? ta, betetzen da. Bai, oso... lan politte da.

– Longaniza, nola esaten da? 'lukainka' edo...?

Lukeike, lukeike.

– Eta, gero, kumeak egitean, eme direnak hazi eta ama izateko gorde eta har direnak 'gorrin' gisa erreta jateko saltzen dira?

Bai, erretzeko gutxi emen. Emen, fondetan ta bat o beste emateute, beño, emen ezta ala, ez; emen, bi... bi-iru illebetetatik iru bittertio? saldu itten ttuu zerriek, ta... izeten da gizon bat, gizon bat, tratante... asko dee, ortaa saiatzen deena, been kamionetakin tortzen dee? ta, artu? ta, Bartzelonaa ta ematen ttute ta, Montero, Irunen bada? famoso at, ta, arrei asko... ermaten diote. Ta Zaragozaa ta, lenao? ni gazte nitzela? Erriberatik, kasi erri guztietatik tortzen tzeen, batek ogei, besteak oeittämar, ola ematen zittutenak, tratanteak ez, partikularak, beño oain? bee tratantek eta, artu? ta, an plantatzen ttute, zeak, bai.

Inauteriez zerbait (1980)

– Hemen, inauteriak egin izan dira inoiz?

Len bai, itten tzeen bai. Nee... ni, soldauti torri ta, urte batian o, in giñuzen. Geo, opatzeak, asarretu in tzien mutil(l)ek, ta utzi zeen kostunbre oiek denak, beño... itxes itxe juaten giñen!... Lemixiko, axuri et, karritzen giñue, Panplonatik; zazpi-zortzi-amar kiloko atsurie? ta tabernariei ematen giñon, ore, gisätzeko. Ta, gau artan? oe jaten

12 'Gelditzen', alegia.

giñön; beño, atsalde artan? ibiltzen giñen itxes itxe? jaski batzukin? ta... gerrena bada-kizu zer den?

– Bai.

Gerren batekin ta, biltzen giñuen asko! asko. Urrengo jayen? ayek, bi eunes o o irus? inko janta! eaaa!...

– Jendea ateratzen zen etxetik mozzorraturik edo?

Bai, bai, bai.

– Nola esaten zaio, ‘mozorro’ edo?

‘Caretas, caretas’, bai; ola jarri? tä...

– Eta dantzaren bat egiten zen?

Ez, ez; musikeik gabe; aurren batzuk, mut(t)iko gazten batzuk balen badëre? aiei lasterr iñazi, beste misioik etzuten.

– Irurtzunen beharbada gehiago, herri handiagoa izatean...

Bai, Irur(t)zunen okurrittu zen kaso at, biri laun, elkar, etzeen ongi komontzen, asarratui zauden, ta oyeta(k) pat? mozzorro oietako at, beztittu? ta, klaro! iñok etzakin zein tzen, ta juan enemigoangana? ta, trankazoa eman? ta, il in tzun. Beño, geo, Ameiketa juan bear izendu zu; eskapatu zen emendi beño, Ameiketa juan tzela, bai, Prantzie pasatuta.

– Eta harrapatu zuten?

Ez, ez-ez-ez; beño, gizona karreteran, trankazoaz jo ta...

– Eta bertan hilik utzi...

Ilik, an; ta? ordun, Irurtzunen pena zen oi.

– Eta, Etxarri aldean-eta, zerbait egingo zuten...

Orr itzeingo zen, bai, Etxarri-Anatzen ta or, asko, asko itzeinko ze. Etxarri-Aranaz ta, Alasua ta, oietan, oaiñ e izeinko da zerbait, festa ortatik, beño, emen, erri ontan ez, ez.

Belarrak egin beharra (1980)

– Beroa etorri da azkenean...

Bai, oi nai giñun, belarra baki? ta, busti itten tzaikion, seittun, ta belarra bustiezkeos? indarra galtzen baitu ba, ta kolorëa. Belaria, belarra ongi sartzeko? berde daola? ta berde sekatu biar da, ez koloria... urekin kenduik; eztu ez alimentuik ez... daus e eta.

– Horregatik buelta eman behar zaio...

Bai, bai, bai. Guk? aurtengöak sartu ittugu, binbil eo, fardoak sartu ittuu, bai. Binbili? fardoak, itzeinko, bai, ogei kilo o ala itzeinko ittu. Goie guztie! beteik daukegu, fardotegie, almazenatuik bezela, bai.

– Goiko horri nola esaten diozue? ‘sabaiao’ edo...?

Sabaie ta, auztegie; ‘sabaiau’ saten diote or, Iruñetik gora, bai.

Ogi labea eta ogigintza (1981)

– Etxeetan izan da laberik?

Bai, bai-bai-bai-bai... ¡ya lo creo!... Emen giñauken guk labea, ementxe, ta, labeko... at’ates?... (labea erakutsiz:) Ara! au da... labiak tzuen ataka; au txabaldu?... bai, ortik sartzen tzeen obiek. Lenbizko?... labia zen oso aundie, e? ola.

– Borobila?

Borbilla; izeingo zittun... metro at, erdi-erdien? metro at alture, ta geo, bajatzen-bajatzen, ola, bajatzen, guardasol bat bezelaixe, tzea, bai. Lenbixiko? sue maten tzaion, egurre sartu? ta sue, paper battekin o, abar zenbaitzugin? geo, eurrea, lodiagokoaki? ta, bittertean? ortxe badaukeu beste katxarro at, t'ortxen ttuu, kusi?... Ta, ementxe? itten tzigun gue amak eta, gue... arrebak? iriñe bota? ta geo ure, ta ateatzen tzen ola? ta, zatratuz, zatratuz, zakatu, iriñez ta ure?...

– Zanpatuz-edo?

Bai, zapatu? ta... bai, ta masa itten tzen? ta goortzen tzen garaien? utzi pixkuat ta geo, fermentatu itten tzeen, iriñ ore ta ur oe, ta fermentatzen tzeen garaien? puskeka ateatzen tzuten maien gañea? ta puskeka-puskeka in? ta obien tamañe. Ta geo, an sartu?...

– Labean sartu?

Labean sartu; bittertean, labia prestatzen tzen? ta, prestatzen tzen [...], labian, ladri-lluek eta denna, txuri-txurie, jartzen tzen garaien? obie sartu. Obie sartu ta, sartu? ta, belaxe, itten tzen; obi ori egitan (sic) tzen, obie?... ta geo, pixkeka-pixkeka, ola, erretzen tzen ta ya, erretzen tzen garaien? atea!

– Eta ogiak nola sartzen ziren?

Pala aundi betzuki, pala batzuk ola, zuresko pala batzuk? eta, ta barneaño! lenbiziko barnetik asi? ta pixkeka-pixkeka [...]. Ta geo? mi(r)itten da or, nunbaitten; txapa burnisko atekin? pala burnisko atekin? artu? ta, ateatzen tzeen obiik, bai.

– Eta atera ondoan, non uzten ziren?

Obiek? lenbixko oztu.

– Zeren gainean edo non?

Nun? bakitzu! lurrien, lurrian.

– Ohol baten gainean edo?

Ola baten, bai. Ta gero? sartzen tzeen armariotan, o arkak, kutxien bat; baakitzu zer den? oietan... ortik, zortzi egun o ala, irauten zuten, obik, erraldi bakotxak; zortzitik zortzia itten giñue guk.

– ‘Erraldia’ zer da?

Erraldie? masada; erraldi batzuk, leurriei saten diote, leurri betei.

– ‘Leurri’ edo ‘neurri’?

Leurri.

– Zer da hori, ‘medida’?

Medida, medida, bai. Ta, erraldi da... masada; ¿pa ocho días? zortzi eunetako erraldie, bai. Jo! askotan, gu(e) amak, bialtzen tziun Alkeiñena? eurr eske... Geo, ori pres-tatu iten duu oraiñ e!

– Egur eske? ‘en busca de’, o ‘a pedir’?

Al monte, a traer leña, egurr eske, bai, eurre ekartzea; paxu bat artu? ta tira! bi, bide¹³ muttikon paxueki? labia beotzen tzen, aldi bakotxan.

– Zer da ‘paxua’?

Paquete... la carga, bai.

– Hitz batzuk ez ditut ezagutzen...

13 Harrigarria, agian, *bide* hori, izen bati itsatsita dagoenean *bi* izaten baita.

Sí, cada uno la carga que... eso, un paquete, y con lo de... ¿dos chicos? se calentaba el horno, berotzen tzen. Gero labia, jartzen tzen, ‘al rojo vivo’, ¿e?

– Gorri-gorri...

Gorri-gorrie, ladrillo guztiek gorrituik.

– Errainak esaten du ogiak sartu aurretik labea garbitu behar zela...

(Errain Josefina:) Yo le decía que cuando se le da fuego al horno, cuando se calienta el horno, antes de entrar el pan, con una escoba se barre todo, sí.

Con un, trapu bet, makil beten punten, trapu busti et jarri? ta, busti arekin? brasa; badakizu zer den brasa? brasa aiek baztarreatu, geo obi leku garbien jartzeko, bestela? aien gañian jartzen baduzu? denak sartzen tzeen... segido. Oiek garbittu bien, lenbiko, ta geo sartu obiek, leku garbien, e?

– Eta horri nola deitzen zaio? ‘eskoba’, ‘ezpela’, edo...

Espera, oye... ‘labezatarra’, labezatarra. Ba, labezatarra? esaten diote, labia garbitzeko; makil beten punten, olaitxe, trapu busti? ta, jartzen da, bai, labezatarra.

Erleez zerbait; hiru zatitik lehena (1985)

Ara! goiko mendi artan, zegoan¹⁴, erlètoki bat, ta gue itxeko... morroi bat? gue itxean morroi tzegoen bat? artzai ibilli tze(n), ta bazaki non zauk-, zein arboletan zauketen erliek lekue. Ta esan tzeen juan biar giñuela ta; juan giñen? aixkoa txiki bet artu? ta balde at... urekin ibiltzen den oietatik? ta, bazkaltzeko’re bai, eaman giñun? ta botilla at ardoaki(n)? ta juan giñen mendi muturr artaa.

Ta, kusi giñun? erliak nola... ateatzen tzeen arboletik; ta, asi giñen junt-, ara arri-metzen? ta alborotatu in tzeen erleak, ta ezin giñun eskuik sartu, ta aixkoaki? puske at goitittik? ta beste puska at, beittitik? kendu in giñun ta, zulo at aundi in tzen ta, ordun asi zeen erlèak, u-ru-ru-ru-ru!... ta, itteatik? su in giñun guk ondöan, ta su arren ekiak? juan tzen erletaa? ta, ordun apaziguātu zee, ta guk? zali betekin, ta tzeaki(n)? ta, aurpegie tapatu in giñu, giñuzkien arrepakin? dena tapatuik? begiek besteik ez giñu uzten, etzena e. Ta, artu? ta, pozalea, erdie erle? erdie...

– Ezti?

Eztie? ta beste...

– Argizaria?

Argitzarie. Bete giñun pozala, ta pozik torri giñen itxea! Ta itxan? ze poza gue emakumeak ee!... anbeste ezti etzutela sekulen ikusi!... Ba, guardetu zuten ongi, ezti oe!... Ta geo, argizerie? estutu? ta, azkeneko tantaaño? ezti, ezti, ateatzen tzaio, ta gelditzen da... pasta bat iñik, argitzeri ori, ta, Iruñea eaman? ta oso gaexti saltzen tzen; argitzeriek obenak? orrekin itten men tzee.

Beste... oaingo argizeriok? artifizialak zeela, ta ore zela ‘zera pura’. Zea, Iruñean bazen Mayo, tienda bat, Mayo? ta ara juaten tzen gue ama, ta arrek: «Berris ee, zue gizonak, artzen batue, ola, erle at? dauketen gramo guztik? karri onea, argitzeri-gramo

14 Berriemaile honi *zegoan / zegoen* bildu bagenion ere, Ihabarko berriemaile nagusiak *zeon* erabili zuen (Hiri-berriko predikueta, *cegon*). *Zegoan* adizkia urritzolarrak askotan erabili zuen bere hizketaldietan, amaren mintzairaren eraginez agian, era horixe baita ama jaio zen Araizko Azkaraten eta hurbileko Betelun aditu eta bildu duguna.

guztik; ez tie zuendako, beño argitzerie karri ona». Ta, ola, gio? geyagoik ez nitz-, ez nitz- alleatu. Aldi artan? morroien... ur oyengatik; bestela? ni, beño bazeen gizonak? ure tze(n), udaberiän? udaberri? ure zegoan len tokin? guardien... jartzen tzeen.

Ta erliak torri? ure artu? ta dzi-dzi-dzi-dzi! been... zea, direzioa? seguro been lekue, been arbolea o been zuloa, eta, artatik gietzen tzeen. Gitzon bat bazen Etxeberrin? Migel? –il tzen, ni beño urte at gazteao ze– oe, ortaa saietzen, saietzen tzen, beti! itturrie non tzen? ure non tzen? ta, asko arpa zittun arrek. ‘El mielero’ esaten tzioten gitzon arrei, ‘el mielero’ ta geo, berris, uso-denboan? ‘el palomero’. Txozak, badakizu zer deen?

– Bai.

Ba, txoza oietaa, jende abeatsak deitzen zute, ta, palomak, usoak, torkazak eta... eso? manejatzeko? ortan ateatzen tzun bizie, lana, lan asko in bae, etzaion gustetzen ori, beño...

– Eta zer, txozak-eta egiten zituen?

Txozak eta, deitzen zuten gizonak, abeatsak, bazakiten ta... euneko... amar pezta ta maten tzioten denbo aietan.

– Txozak egiteagatik?

Txozak in? ta... bea ‘palomero’, olatxe jarri? ta, andik eldu dee usoak? usoak mugatu, ta geldiazi, ta arte aundie zun ortaa, ta, jornal asko irabazi itten tzu.

– Eta Exeberrikoa zela diozu?

Etxeberrikoa, sí; il tzen, il tze, bai, olaixe... olaixe, olaixe. Ba, ez tien kontu oi, orrek in akabatu ze. Emen, bazen... eerra pastu zaikion bai, beingo ates. Gizon batek bazittu(n)... kajonen bat, kajon batzutan, jartzen zuten, erliek, ta bazittun amar kajon o; lenbixiko itxe ontakoa ze(n). Ta, aldi betes? nee lagun bet? orkoa? nee kinteköa’re, biek juntetu giñen? ta... «Oye, i, olako... lekutan, ez tie, kusi ziotet erleai nola daukete, ta gaubian o... juanko gattuk? ta artu». Ta... «Bai».

Auzelana itten du (!) Iruñen, eun artan. Ta, erriko... gizonak, geienak? gaztiak eta zarrak? biltzen tzeen ta, lan ittea, bidiak komondu-ta. Ta, eun artan? arriek atra? ta, gurdi kargatu? ta bidia komonduik, bidian, negun ez loien sartzeko? arri jartzen, kapa at. Ta, ortan ai giñen? ta bezpea gaubian, biok, juaten gäa... erletaa? gue itxetik... atzekotik juan giñen? ta nik artu nun... pitxera bat, kinder luze ateki; ango lana banakin? ta, esan nion, pues...«Au komeni tzaikiuk», eta. Nik? artu nun pitxera at... aundie? kinder luze ateki? juaten gea? ta, gaueko amarretan o ala ze? ta raaas! pitxera sartu ta, erdi ez tie erdi er-, argitzerie? bazen ta, ras! pozal batea.

Ta, berris sartu? ta, iruittu zaikiun garaien, beño erlëak enfadatu ta, enfadatu zee, ta nei? olaixe ezpañen gañen? piken, txik!... in tzeen, ta arrei? ola, belarrin? sekölako... iru-lau pikatzö. Bueno! juaten gea gure sukeldea? denok goatzean tzauden? ta, urtu giñun? ez tie kendu giñun? ta nai-, naiko ez tie jan in ñun ni! ogi puska at artzen nun nik? eta, naiko ez ti jan giñun! beño, urrengo eunian, nausien aurrean lanea juan bear! ta nik ez tait, zeatik... ta, arrek e ola, oiuka, ta juaten da erleetaa ta: «¡Ya sé lo que habéis hecho hoy, ya sé lo que habéis hecho!», sekuleko sermona bota! «Pero que no os... etzeiztela sekulen olakoik asi! eztuk... dañu itten duztena¹⁵, perjuizioak geroko ta, erle

15 ‘Egiten duzuen kaltea’, alegia.

oik galdu itten duzte, erle guztiek galdu itten duzte; arrei kendu biar zaio? ola ta ola, ola ta ola, beño ola, zuek betzela?... gald(u)ik utzi duzte kaj oe.

Ta... beti! begian txarra itten tzigun, ta, azkeneko? udan? muitzen tzeen erleak? ta, beyekin ta idiekin, larrañen, eultzin ibiltzen giñe, ta etzaikiken geldittu, erle aien ondoan. Torri, ta piketzen tziuten t'an... been, eultzie, baakizu zer den, zea...

Erleez zerbait: hiru zatitik bigarrena (1985)

Arrastan i(b)iltzen tzeen, beyeki(n) ta idieki, eultziin, ta erleak ain ondöan zaure(n), ta piketzen tzioten ta askotan, been arrastaki? eultzitik kanpoa ateatzen tzeen. Ta, ones onea? gizon orrei? erriko gizonak? san tzioten: «Bueno, erle oiek kendu biarko ttioz-... ttiozu ortik», ta «Bai, pentsatzen dut nik ee... trastorno aundie jartzen zutela? ta, kendo duko ittut».

Ta, kanbietu in tzittun beste alde ontaa, ta, pixkeka-pixkeka itzela zegoan? iruzkik ez, etzion jotzen leku artan, ta pixkekas, denak il tzaizkion? ta, akabo, oi bezelako erliek; geyakoik eztut, itzendu. An, alde ortatik, iruzkiak jotzen tzion eerki, beño, kanbiatzeaki? itzelea? il in tzeen e, bai.

– Beroa beharko zuten-eta...

Beroa biarko zuten, bai.

Erleez zerbait; hiru zatitik hirugarrena (1985)

– Lehen esan duzu artzain egoniko hark ikusten zituela erleak ur edatera joaten...

Ur eatea ta, bai, bien lagun leku? erleak ibiliko dere bueltaka, bai; ta geo, andik? jiradunak... artzen du? ententitzen dunak, bela, goartzen da, ta seittentzen diote! Ur asko itzendu men tze, gu ortaa eziñ in jarri gañea, orr asko, arbola aundi(k) zeen garai batian, ta arbol zuletan? itxeak bezela, ejeje!

– Esan duzu halaber, gau batez, pitxer bat hartu eta lagun batekin ezti biltzera joan zinela, ezta?

Gaues, bai.

– Eta zergatik gauez, disimuluan joategatik edo?

Nausik kusiko zigule biak!

– Baina, haserretzen badira, gauez ere zizatzen dute, ezta?

Bai, bai, bai, pikatuik utzi in tziguten; bee olaixeko... esprin¹⁶ jartzen tzaio, ta arrei're bai!

– Zergatik ez zineten joan arropak babesturik?

Ba! ta ezta... ezte kendu? ta, ala ere, erlen bat o beste gelditzen tzen, kieta... ola, ola; beti e, urrengo eguneako? markak an (barrez).

– Orduan zu mutil gaztea izango zinen...

Bai, emezortzi-emeretzi urte; biok kinte atekoak, biok...

– Gaztezaroko...

Guk juizioik gabe!... Pues, gizon arrek esan tzigun después: «Coño, si queréis miel, ya sabéis... éztie nai buzté? badàkizté? zé garáiten kéntzen dioté, (zuzenduz:) díóu, ta zázte

16 Horrela aditu uste dugu; 'ezten' ote da hori?

zuen itxeá? ta, platér bana áundie eztíe mankó zu, mán inko izu, beño éz enreatú... èr-letókiik», san tzigun gizonak. Errazio zauken! beño gú? gáztëak, je!... éro samarrák!... éjeje! Aláixe.

Behiak otoizlari (1986)¹⁷

Gizon batek, bazauzkin bei kuadrille at, ta, bat? asi tzen um'itten, ta ezin iñez zegoan garayen gizon orrek, beste guztiei? «Errezatu zazte! zuen lagun orrek ongi in tzala umëa», beyez... bestentzat¹⁸. Ta, denak, beiek ixildu? ta, beño: «Erreza zazte, zuen lagunen alde». Azkeneko? ola zegoala? umea in, in tzu. «Ara, ara!»...

Ta, batek? «Ooo!» in tzu. «Bai, ori, zuk itze izketan etzioket in, ori... artu du Jaingoikoak? orazio at bezela, ta ara! in du umëa. Ta, beste aldi etean? beste at, asitzen bazate ola, ume itten? beste gañeako guztiek, errezzatu biar diozte, Jaingoikoari».

Animaliak ferratzen (1986)

– Haroztegirik izan da hemen? ‘Herrería’?

Emen ez.

– Nola esaten da?

Fragua.

– Eta euskaraz?

‘Sutokie’... bai, sutokie.

– Eta, hemen, inguruan non zen? Zein herritan?

Etxarren, Irurtzunen ee bai, ta... Villan-, Ireberrin, Billanueban... ara juaten tzeen... idiek, ferratzea ta...

– Ikusi duzu halakoren bat ferratzen?

Bai gizona!

– Ea, ea ongi kontatzen duzun...

Ara! olaixe, lau poste, jartzen tzittuten, been gantxuaki(n), ola; ta idie o beye? sartzen tzen atzetik, ta, aurrë ortan? tornue betzelako gautze at? bazauken, lotzeko. Ta geo, emen, bi äldetatik? makil betzuk, ta, buelta manes torneui? beye o idie zena? airian jartzen tzuten. Geo, ukatik eldu? ta tirante, estu-estu jarri? geo, muitzen etzela animelia. Ta... jartzen tzittun ferrak.

Lenbixko? leundu, azazkala, ongi leundu, ta orrela, ya, ongi asentatzen tzen utzi? ta geo, iltze atzuki(n)? azazkalan, baztarretik? sosi itten zute. Sei, sei-zortzi... iltze jartzen zittioten, ferra bakotxei. Ola.

– Min egiten zitzaien?

Ez! ez-ez-ez, iltzeak ez; iltzeak, zenbaitt aldiz, deskuidetzen bazen ferratzallea? makur-re at, makur sartu? ordun? meki ein zittu. Askotan? meki gelditzen dëre...

– Meki?

17 Honen antzeko bertzio bat *EDEL II* delakoan (198. testua) argitaratu zen.

18 Arakilen, genitiboaren gainean eraiki destinatiborako *-entzat* bukaera bainoago *-endako* aditu dugun arren, berriemaile honengandiko laginetan *orrentzat*, *launentzat* eta *galtziñentzat* moduko hitzak ageri dira. Litekeena da joera hau ere bere amaren aldetiko eraginari zor izatea.

Meki, beño ferratzale ona balin bazen, ez; meiki? ta... odola botatzen zuten, asko... bai.

– Eta ‘meki’ zer da?

‘Cojo, cojo’... meiki.

– Eta azazkala zerekin leuntzen zuten?

Azazkala? zea... pujamantea; zeat-, gauze bat? zorroz-zorrotza, bee kinderraki(n), or pasatu? ta, eamaten tzun azazkalan... sobrantia ta, eta ya unen linean jartzen tzun? azazkala? ta geo, kusi, ya... ez, jotzen tzun o etzun jotzen, asentatzen tzen ongi? ta, ongi asentatzen balin bazen? buelta at bazauken, ferrak, ta, azazkalan gañetik jarri ore, ta ordua(n), sartu iltzea; sei, sei iltze o, sartzen zittu.

– Eta zein beste ferratzen zen? Behiak bakarrik?

Bayek eta i-, zaldiek e bai... beño beorrai ta zaldiei? juaten tzenak, eskuekin lotzen.

3.2. Era askotako ipuin eta ixtorioak

Ijitoak, hartza, pandereta... (1980)

Ni txikia nitzela? torri zeen iru gizon, jitoak betzela, beltzak! sonrero aundi betzuki, ta karri zuten? animele bat, itsusi oso!

Ta, pandereta’tzuk jotzen zittuten ola? pon-pon! pon-pon! ta, dantzazi in tzioten, animele orrei, ta geo, txapela kendu? ta buelta eman tzuten limosna emateko. Ta, man giñun, pezta bana ta, juan tzien pozik bee, ta gu’re bai.

Ta geo, Donostin ikusi nuen nik, Igeldon, oso¹⁹ at, ‘úrsula’ esaten ziotena; zulo batian sartuik tzegoan, ta, guk karameloak eta botatzen giñon, ta zutik jarritzen, jarritzen tzen. Ta geo, zirkoetan ee, askotan, osoak, kusi izan dittut, beño, emen errin? len-biziköa? ttikie nitzela? ori kusi nun. Ta dantzatzi in tziote, pandereta jo? ta, benga! saltoka ta, ori ibiltzen tze.

– Nongoak ziren haiek?

Ungaruak, ungaruak bai, jitoak! pipe aundi betzuk zauzkiten ta, fumetzen ta or ibiltzen tzeen.

– Eta zer arropa zuten?

Bai, oso gaizki beztuituk! an, sonrero aundi betzuk, bai.

– Eta belarrietakoak eta...

Emakumeak bai, bai; emakumeak, belarritak’undi betzuk! bai.

– Eta karabana edo, ijitoak bezala...

Jitoak bezela! karröak, eta geo bazittuten, karro batëan? bele batzuk, ta belëak ee? jotzen tzioten ola? ta makil betetik bestea? saltatu ta, dantzan bezela ibil tzeen.

– Domestikaturik edo?

Domistiketuik denak, bai; ta, been bizimodue ori zen, beño! jende za-, itsusiek oso! tzikiñek? ta... a! aiek etzauketen ez kriantzaik ez daus e! daus e; eee! mixerie ugari; aien tierran? mixerie izeinko zen seguraski. Ta, ungaro zee.

19 ‘Hartz’ bat, alegia.

Amabirjina Pilarekoari mantua oparitu (1980)

Biok ginun, Adorazion Nokturnekuek giñen Iruñen, ta [...] in bearko zioten, Zaragoza juateko peregrinazio batian? ta Amaberjiñe Pillarekoai? manto at, abito at, erregalatu giñon. Ta, gero jun giñen an, España guztikoak tzeen [...], iru eunes eondu nitten. Ta, neetako beintzet, gizon kontzientziköa ta formala ta-ta... de primera. Ta asko entzuna, nik beño argi geigo dauka, bai. Ni, emendik ez naiz atea; arrek? Bilbauen ta denak ibil ttu ta, je!...

Ta, onea torri? ta lanik gabe ikustea, negun, gazteak ta ola? tabernaa juntatu? gaetan, ta, dotriñe ta... Jainkon koadrillak ikusten, e? geiltzen tzen. Nik etzakit, eztut uste, beste alde ibilliko zerala zu beño, ori? ola da, bai; Jaungoiköan legëa? puh! [...]. Nik, alaba bat, Burladan monja dauket eta, urtiero ejerzizioak ittea, arren... arren, bai, komentue juaten gara, bai.

Herriko festak (1980)

– Hemengo festak noiz izaten dira?

Amaberjiñe Errosariokotan.

– Iraila? ‘setiembre’, zortzian edo?

Ez, ez, setienbren urrena.

– A! bai, ‘octubre’...

Oktubria, oktubria, bai; las-, ‘lastalle’ o saten diote. Oktubrëa bai, lastalle.

– Eta zer festa-mota egiten da?

Maieko festa, je! bai. Ta geo, kordeon bat ekartzen dute, ta atsaldean gazteak, juntatzen dee ta, dantzatu, afaldu arteo? ta afaldu ondorian berris, itxe batean e, jartzen dute? ta, itxe gobiernoko iru bertsö? ba.

Lizarraga aldean otsoa ehizatu zutenekoa (1981)²⁰

– Oroitzen zara nola gertatu zen hura?

An? atéako zeén, éizea! zerbáitt, nùnbaitt eé? ardíek jatén zittutén, ótsoak, ta... jün-teu in zeén artzáiek, ta éixteriék... ‘éixteríe’ bákizu zer dén? kazadórea, ta, tratàtu zutén zéotzéra, ta séittun zeuketén ta, orrék, besómotx orrék, izèndu zùn suerteá te íl tzuen.

– Lizarragakoa?

Litzarrágaköa; ta tirétu? ta, èrittuík? onéta torri ze.

– Non tirokatu zuen, mendian?

Bai, mendién, an, Litzárragakó goóti, ta, ortí? eméndik pasátu zela. Ta, géo gizon bat, İzurdiagán batzén? pixkuát, txóroa zén, mutíl tzárta, ta, egúrr eske juán? béyeki, ta, kùsi tzulá? óla zeá ta, errìe torri? ta àlkateí esán in tzion: Ólako lekután? tzàkur bat áun-áundie! íllik dao». Ta, bazakién alkáteák, nóla... arraistrótik èldu zeén èixtuík? Litzarragatik? ta, juán tzeén bí gizon, ta bídiaren ondoán? antxé... ar tzutén, ta, séittun torri zén Lizarráako besómotxa, ta, bézteon batzúk il zittú? Lizarráako, (zuzenduz:) İzurdiágako gizon orí? ta, eáman éin tzun.

20 Hau baino bertsio laburrago bat *EAEL II*-an (198. testua) argitaratu zen.

Ta, géo, eamán? ta tripe gúztiék eta, an, zéakin gúztiék kéndu? lárrue kéndu zióten, lárrue, ótsoai; ta, larrué... belàrres béte? èspetú, ta, bízi zegón bezéla járri? ta emén, ferís ferí ibíli in zute, ta, Irurtzùngo trinketeán? Bí xent-, ogéi zéntimo... kobratzén tzu-ten, mútikoai. Ni, an egóndu nítzen kústen, ta gizonái? pézta át...

– Ikusteagatik?

Kústeati; áintxe zegoan, zùti-zutík? bée... bízii(k) zegón bezélatxëa, ta, ezt'ásko gèix-kittú ta géo, artzayék eta, juntètu zeén? ta mán tziotén, besòmotxari? díru fránko. Ya, bésomotx oé, aspáldi ilí(k) itzéinko da, bai.

Ni, amaláu urtéak artió? Irurtzúnen eskolán ibíli nitze; négu-, nègután? jártzen tzé, Irúrtzunen. Emén bagiñún eskóla Errótzen, máixtra at, bèño Irúrtzunén? máixtru ét óna zegoán? ta, yá mutílek... áundi xamarrák? norbéit ta tzéa... gáubeakó? ta, àrtu gazkiú? gáubekún? ta géro kláse mateko. Ta, ni? dènbo artán? ára juatén nitzen ta amaláu-amabóst urté nittun: mil novecientos quince... catorce-quince izéinko ze. Famoso... 'Curro de Lizarraga'.

– Curro?

Kúrro baize; bésomotxí 'curro' etsáten tziotén, bai.

– Zein izen zuen?

Eztákit ze itzéna [...]; ni, akordàtzen náiz, trinkétean, an, sartzekó? bí txakur aundí, pátu biar giñuéli(k); ta éz ukittéko, éz ukitzéko (barrez), ozk'eínko tziúla, ez úkitzéko; ju!... Klaró, zúra é, pelígro izèin tzún bótatzeko o olá...

Teodosio de Goñiren kondaira (1984)

– Ausartuko zinateke istorio hori euskaraz kontatzen? beharbada bai...

Jeneralean, gauze printzipala bai: gizon ori nola jua tzen gerra, ta andriak... baza-kin gizon orrek nun lo itten tzun andriak beti, ta jua tzen, ta, aldi betes, bidëan, beste... demonioak esaten tzun, esaten tzion: «Oye, Teodosio, zu, Tteodosio, zue andrea... ezteit, olako gizonekin, guatzean dago». Ta gizon ore jua ta... eztakit, expata? o bee artan!... aittetamak, ustes bee andria beste gi(t)zon batekin tzen? bee artan il zittu, ta... ta atzea kanpoa? ta, andria, bee ferret...

– Bere ferretarekin?

Bee... urekin, bai, ta: «Nor tzen... guatzean?». Ta: «Aittetama». Ta: «Nola kanbiatu ziñun ba?». «Nik obeki eoteagatik, an jarri nittu». «Il in ttot!». Ta, geo, Erromaa juanta, Aitte Sanduek kastigu ori eman tzion: kate ayek ark, autsi arteo, ibiltzeko menditan.

Ta, geo, menditan zabillega, dragonen bat, tortzen tzen San Migela; ogro bezelako gai izéinko zen ta, euneo? gizon bat, persona at, mendia atea bear ze, bestela erri oiek, jetsi? dragon oi? ta estrozatu [...] inko tzuela.

– Zer egingo zuen, destrozoak?

Destrozoak, asko ilko zittula, ta, ola torri zela. Juan tzen... bueno, betire, egun betez? ba, jua tzen, neskatzek atzea, ta enkontratu zu(n)... Teodosiokin, ta: «Noa zuaz?»: ta: «Onea etorri naiz, euneo tortzen dee Uertetik jende artera». «Bera, egon zaitte trankilo, eztizu ilko». Ta, orittikán? dragon oi plantatu men tze(n), ta Teodosio orrek, burruken asi, dragon orrekín? ta, il tzun dragona, ta neskatzex... itxea bialdu zu. Ta ordun kateak autsi zeen, ta, San Migel, an dauka zintz-, zilintzika, katiak. Beño, katiak, fuertiak! eta nik eztait nola, nola autsiko zittun ee! ikusiko ziñun zuk... bai, ola.

– Ongi kontatu duzu, e?

Ejee!... be!

– Eta, orain, San Migelen zein dago, don Inocencio-edo?

Oain don Inozentzio [Aierbe], bai. Facundo il tzen, nee aixkide oe il tze(n); emengua tzen, emen familik etzuten? ta, ara jun tzen, morroi, San Migela. Ta, gue... erri ontako jendëa? ba zer? itxe, itxea bezela juaten giñen San Migela ta, antxe emozio guztiek eakusten tzigun? ta, aldi artan? liburu oiek, eakutsi tzeen nei. Ta ekarri nun, ta esan tzeen: «Bueno, beño, itzuli in biar duzu, zengatik bibliotekan, an utzi in bear duu ta...».

Anozko mehatzari bati eskopeta erosi (1981)

– Hemendik Ollaran aldera joaten bagara, zein da ibar horretako lehen herria? Anotz edo Iltzarbe edo...?

Emendik? emendik... Anoz! bai, karreterak... altuna?

– Eta mendiz joanez gero?

A! mendiz joanezkeos? lemeziko? Atondo, bai, orr Atondo, ta Iltzarbe? mendi onen aukzo aldetik; muge? erdie, muge... gaiñ ori da, eso es la muga, el alto ese, ya ha estaö... alambraö.

Ni, bein... –ixtoria bada, bai– emetzi urte nittu, ta, Anotzen mine bat bazon, bazen, mina de hierro o eztakit. Ta joaten naiz? ta banakin, minero atek, eskopeta bat saldu nai zuela, ta kasi, elurrei²¹ bezela, asi zen, ni juan nitze-, alleatu nitzelaik Anotza; ta, juan naiz minea? ta, san nion: «Oye me he enteraö que... enteratu naiz, eskopeta at saldu nai tzula, nai duzula», ta, «Bai, or tzaudek! nai bauk, amar, amabost kartutxoki salduko diet». Ta, bueno, tratu in giñun, amabost kartutxoeki(n), ogeitebost pezta, tratöa.

Bueno, ta, elurre ari zun ya? ta ni karreteras, asten banitzen, guardia zibillek denbo artan karreteran asko ibiltzen tzeen, ta esan nun: «Tendré que ir por el monte». Ta, minetik atea? ta gora puske at io? ta elurre ta laño zar bat jarri tzen? emendik orrea kusten ez, ez nuna. Ta, ya illuntzen? nee martxa galdu, bidia galdu? ta malkor batea atea nitzen, gor'ittekko malkor batea, ta, esan nun: «Ez naiek ongi ni, emendik, olako... lekutan, ño!». Ta, torri nitzen ta, Mendiurrun, beste mendi ttiki bet bada or? ara alleatu nitzen garayen pozik, illunduik!... illunduik ta, elurre? torri nitzen, pozik, itxea sartu nitzen garayen, beño, sekulen ez naiz ibilli ain gaizki gau artan bezela.

– Apuratu zinen...

Apuratu, leku galduik, ta lañöa? emendik orrea etze kusten!

– Eta beldurrak zinen guardia zibilekin topo egiteko? Eskopetagatik?

Klaro! lizentzia biar tzen!... kenduko tzeen eskopeta...

– Eta haiek ebitatzeagatik...

Klaro! ortik martxatu, txarra artu nun, ras!... A lo mejor, ez nittun enkon-, opatuko beño, por... por si acaso.

– Zenbat urte izango zenituen zuk orduan?

Nik? emetzi urte.

21 'Elurrari', antza, Zaraitzuko Jaurrietan inoiz aditu dugun *ègun guzián eúriari, que está todo el día lloviendo*, edota Erronkaribarko Uztarrozen bildu *ba hecho un verano tan, tan malo, oi! kaibéste... bétik eúriari, tronáda...* gisako esaldiak oroitarazten dizkiguna.

Garai bateko txanponez (1985)

– Marabedia ezagutu duzu?

Bai.

– Euskaraz, nola esaten zen?

Euskeas? marabideak.

– Gizon bati aditu nion ‘maidi’ esaten; zuk ez duzu aditu horrelakorik?

‘Maibidi’ bai, zea tzen... ttiki bet! Geo, bazen beste at, bost zentimoköa? ‘cuatrena’ esaten giñon, ta, amarreköa? ‘ochena’, ta geo ‘pezeta’, bai. Beño marabedi? pertza puska atzuk, maten ttute, igual eskiñekin bazee, ta... beste atzuk baze(e)n, ayek... Gobernuekin o, ayek, markatuik e, Madritik torko tzee: dos zentimos; kusiko ziñun zuk e!...

– Ba, zaharrak, itsusiak, belztu xamarrek edo...

Ez, ez, materiala? igual-igual... amar txentimoköa betzela; kolorian? beño...

– Kobrezkoa-edo?

Kobreskoa, bai, ‘dos céntimos’ jartzen tzun, beño beste marabedi oyek? ezkiñekin tzeen, pertzakin, beeh!... guziakin, moztuik, maten tzun; arek... ez iskritzioik eta, etzu.

‘Margarita’ lorearen euskal izenaz (1985)

– Lehen esan duzu ‘margarita’ri esaten zaiola ‘putxia’...

Putxie, bai. Ortan ee, isto-, badee istoriek. Beingo ates, Ameiketatik tor tzen neskazar bat, gur itxea? an pastu men zittun, eztakit, amarr urte o amabi o eztakit zenba(t)? ta tor tzen... gue itxea. Ta eun batiän? gue amak: «Iros a... a coger putxis²², a la era», arrek in nai zun, amerikana arrek in? ta, «¿Qué, hay muchas putxis aquí?». «¿Aquí putxi? ¡ya lo creo que hay putxis!».

Ta, ameikanak, putai esaten tzion ‘putxëa’... «¿Pero en este pueblo hay...?», arritt(u) ik! «Que sí, que sí; si no sal a la era, ya verás cuántas putxis hay». Farras!... geo nik, momentu artan ez nun konprenitzen beño geo, oartu nitzen garayen, jode!... putxis, putxis... ameikanandako putak tzeen. (barrez lehertzen). Ta gue ama, fijuao: «¡Sí, hombre, sí! aquí hay muchas putxis; vamos, vamos a la era y ya verás»... Olaxe.

– Ederki, ba egin dugu pixka bat, Bautista, entretenitu gara pixkat, e?

¡Hombre! ni pozik nao, e? Zu? eztait.

– Baita ere, gizona, bai, badakizu baietz...

Nik? eun betes, enkontratzen bagiñeke... Pamplonan? gusto...

– Bai, saiatuko naiz; badakit non esan duzun, eta...

Emazte izango zena dantza-leihaketan irabazlea (1985)

Don... esto, don Joaquin Garjón? famatue zen! ta arrek bazittun Villanuevan, iru-lau itxe.

– Zein Villanueva, honetan?

Ontan.

– Hiriberri honetan?

22 Hemendik hurbil, Ollarango Senosiainen ere, *putxis bellis perennis* bildu zuen Javier Irigarayk (1982).

Ireberri, bai; ta... uda? ya denbo ontatik aurea? or pasatzen tzun, ta... oktubreaño o ala? or pasatzen tzun.

– ‘Urrie’ esaten da?

Urrie, urrieño, urrien azkenëaño o ala; ta, urte ates? urrin zortzigarnean? Amaberjiñe eune? festak dee... Ireberri, Villanuevan, ta... pensatu zun konkurso at, de baile, jartzea, ta erri guztietako gaztiei? abisetu zion, nai zunak... parte artu konkurso artan? olako... euntan? ta alako garai ärtan? Ireberri, olako itxetan, zea, preparazioa bezelako... konkursoa prestatzeko bezela, izeinko zela reunio at. Ta, gu juañ giñen, beño, nik dantzaako... jamas eztut balio izendu, ta ez nitzen to-, beño, gue andria? Irañetatik? beste... zazpi neskaxte ta mutillek? torri zeen, been uniformiaki? galtza txuriek, espartziñek, soka gorrikin, ortaaño lot(u)ik? ta falda... zabal batzuk? gero...

– ‘Falda’, nola esaten da, ‘gona’-edo?

Gona! ta gerri miar-miar, je! ta denak, Arbazu, Uarte, Irañeta... erri oyetatik guztiik, ta asten dee musiken? ta, Iabarren bazen txuntxunero at.

– Non hori?

Iabarren; Agustinak [Irurzun] jakinko du, Agustinan itxean, an bizi tzen txuntxunero oe. Ta txuntxunero ark bazen, bazittun... anaiarrebak, ta ayek e parte artzen tzuten dantza ortan. Ta asten da jo-, musike jotzen? ta, denak dantzan, ta, lenbixiko? denak nasiik, bien; beño gero, lenbixiko erri batei, geo beste erriei, keo beste erriei, ta, txuntxuneroak, bee alabak ta semia zun garaien? ongi ensayatuik zauken pieza? jo tzun, ta, ongi, beño ori eztä naski, dantzariako, (zuzenduz:) dantzaako balio zunak? bazeen beste atzuk e, edozein musikik.

Ta, Irañetaköak? irabazi zuten premia: lenbixko, lemixikoei, amar duro; geo? zerrikume at, eun artan beendatzeko bakotxik, erri bakotxik bee itxean? merendatzeko? been errin? zerrikume at, ta nee andreak irabazi zun, premio ori. Ta, gero? ‘la bailarina’ esaten tzioten, ‘María, la bailarina’ esaten tziote.

– Bai? Fama irabazi zuen dantza ongi egiteagatik...

Bai, ta nola deen gauzek!... joño, ez nuke esan bear beño, nik lege pixkuat banauken, aurretik e... amakume orrei, ta, joan giñen, dantza pastu ondorian, benta bat dao, Ireberri, pasonibelian ondöan, benta artaa? ta, Irañetako mutillik... asko! ta, ayek e, zautzen nittun batzuk, asi zeen konbersazioan, ta, nok iabazi zun premia ta, atea zutzen, ta, jartzen zuten neskoï... por las nubes, langillea zela, formala zela, au zela, ori zela, oso ona zela... «Orrei etzio kurtittu bee amak besteik oañik, oañikoan», batek esan tzun, bai.

Ez nitek, asi naiz, kontu oyekin, arrat-orreki? bueno-bueno, nik guardatu nittu. Bea, lendik nai nion²³, ta konbersazio orreki, asko nik ta, belaixe, esan nion, eskribittu nion andik egun betzutaa ta kontestatu zee. Asi giñen? ta... berroeita amar urte, urte erdi bet gutxiago, elkarrekin bizittuik. Beño konbersazio arrek animatu zeen neri.

– Ikusirik besteek ere zenbat estimatzen zuten, e?

Bai, bai, zeengatik, eje! bakizu, makumëak, gaztëak, askok... jeje! beek jakinko zuten nola, nola da; bizittu zeen beño, orai... oso ongi jarritze-, itten tzioten.

– Ederki. Tira, bada, hemen denbora dexente egon garenez, nahi baduzu, buelta eman eta etxeratuko zaitut...

Ez!... ez, ez; zóazi, zóazi, néi koméni báitzaie... ibíltzëa.

23 ‘Maite nuen’, alegia.

Kaliza polliki betetzen zuen apaizarena (1986)

Erri ttikie? ta... apeza nonbratu zu²⁴ obispoak, ta, apezak?... asko eaten tzun, ta... kalizen, kalize? ekarri zun beak, ta kantaro at, kabitzen tzun kalitze –kantaroa? ontze litros setenta y siete zentilitros, bazen–, kantaro at... «Kar idazu kalize, karrizu». Ta, erriko gizon batek, ya... etzion ongi, apezak olako... ëxkandaloa matea? ta, obixpoi keja man tzion.

Ta obispoa, torri zen? ta, esan tzion apezai: «Zure gauzes? zue profesios ta zue... kunplitzeko moduik? pozik nago! ongi informatu deete, beño gauze at... informatu derete, gaizki itten duzula». Ta, «Zer da ba?». Ta, «Aman, tzea... kantarokon bat, kalize erosi duzu, zuk olako ta; ori esajerazio at iduitzen zaikie-ta».

«Oi!... –bee, beste tratamentu zun, obispoak, ibiltzen tzun– Ilustrisima: nik Jaingoikuan... odola eateatik? ez kantaroko... kalize, kupel bat eanko nuke! upel bat beterik, eanko nuke, Jaingoikuan odola eateatik!». Je! orrekin [erantzun?] zitten, obispoai.

– Nongo kontua da hori?

Emengo kontue! nee aittek? emengo kontue, apeza ta guztiek? mozkorrak tzeela, garai batean e, saten tzun. Erri ontako kontue.

– Baina gertatu zen egiaz?

Aittek... ala kontatzen tzeen, egia.

Garesen jende txantxazalea (1986)²⁵

– Gareseko kontua nola da?

Bai, Garéseko... gizonák, írrigilleak tzeén; óla, kanpotár bat juáten bálén bazén? ín biar tziotén bée... júdiádëa, bée azió txarrá in biár ziotén. Ta, garái ártan? longaríne (e)sàten tziotén, kápa bít bezelá? ta... bolúak biltzen tzeé, oáin... zeá ta, máuke... lúze atzúk? ta, óla zegoán, kánpotárren bít óla bálén bazegoán? máuke aietán? arrí kozkor bít ola jarri? ta... óla, óndoan, óndoa juán? ta, màuk oík? bótatzen tzún, bízkerreá bótatzen tzún betzëla, ta gizoná, atzéko aldeán zeón ta, kask! «Òr yegón? ez nákiten²⁶, bárka tzák».

Kànpotarrák? béen... gólpeakín geldítzen tzeen, bai. Orí... égie izen biar dú, kostún-bre orí balémazén, gùe aitték t'álá esatén tzun; orí... orí? gauzé... égie duk, égie duk, Garesén jènde gúztie írrigilleá, írrigíllia.

24 *Zu* hauxe, Bonapartek *hegoaldeko goi-nafarreratzat* jo zuen esparrutik atera gabe, hemendik urrunsko, Artzibarko Hiriberrin bildu genuen; *nu* ibar bereko Arrietan eta *gindu* Esteribarko Inbuluzketan, saio honen hasiera aldean, aditz laguntzaileen iraganaldiko bukaerak, inoiz, *n* morfemaz gabeturik ageri direneko baieztapena egiaztatuz. Hona, bestalde, gai honi buruzko Iñaki Caminoren (1999, 169. or.) ohar jakin-garria: «Iraganean eta objektua singularreko hirugarren pertsona delarik Nor-Nork saileko *edun* adizki laguntzaileak jasaten duen soilketak ere banaketa zerbait irudikatzen du gure eremurako. Itxuraz arras hegoaldeko bilakabidea da: Gesalazko Muzkin eta Itzarbeibarko Utergako dotrinan *zu* 'zuen' aldaera ageri zaigu, nahiz bietan *zue* ere baden [...]».

25 Kontu ttiki hori, gure *ZU*-n (Artola, 2014, II, 330. or.) azaldu zena, hona dakargu orain ukitu batzuk egin ostean. Testuan ageri diren *boluak* gazt. 'los vuelos (de las mangas)' bide dira eta ez lehen adierazi genuena. Zuzentzea dagokigu, beraz, eta baita desenkusatzera ere.

26 Hona, mintzaira honen ezaugarritzat jada aipaturik, iraganaldiko tokako era alokutibo batek darakusan *-t-* morfema, *jakin* aditzaren era trinko batean islatua.

– Zure aitaren garaian, Garesen, euskaraz egiten zen, e?
 Bai, bai, bai, itten tzen, itten tzen; oáin duéla... èun urté? eún urte.

Arakilgo erromeriak (1986)

Ni gaztia nitzen garayen? balle onek? kostunbre at baze ordutän, San Migel aingerue artu? ta... maietzan, beatzigarnian? San Gregorio Ostin? ta, Errotza etorritzen tzen, karritze itten tzen oi.

– Errotza?

Errotza, Errotz, ta, mezaa? Oskie, ermita batea; ta, an meza aittu? ta tortzen giñen Errotza, berriz, ta Errotzen? balle guztiko errik? makome at jarritzen zuten, erri bako-txak makume at, bazkarie erri guztiendako prestatu, prestatzeko. Ta bazkaltzen giñun an? ta geo, soñue jartzen tzun erriik, ta...

– Zein herrik, Errotzek?

Errotzek, ta gaueko amabik artio igual, dantzan eoten tzen, bai. San Migel, bez-peak... atsaldeko lauetañ o ala, maten zittun? ta denak, nai zun guztik? prozesioan, Yabarraño, oñes juaten tzeen, San Migel. Ta, gero? pastu, mutille artu? Yabarren...-ño akonpañatu? te, atzea torritzen giñen Errotza, ta Errotzen? dantzan eoten giñen gauerdino²⁷.

– Bai, e?

Bai ta, gauerdino, ta, baktotxa bee... geo bee itxea; beño oso egun politta pasatzen tzen.

– Zein soinua izaten zen, akordeona-edo?

Ez, ez, Yabarko txuntxüneroa, txun-txun, gitzon batek, tzun-tzun, txistue? ejeje!...

– Txistu, txistua zen?

Txistue, bai, ta tanbora; dena batek!... ta, klaro, traxak! atea zan musikoa ya jotzen. Geo? akordeonistak ateatzen tzeen ta, askos ere, politao! akordeona, beño? beste gauzeik etzegoen! ta, an konten giñen.

– Eta nongoak ziren hara joaten zirenak?

Arakilgo ballek? amalau errik... dittu? ta, amalau erri oietako rekomendazioa? etor-tzen tzeen, Errotza. Errozko jendia? pozik, bazittuten Iruñen ta, parientiek? ta Iruñe-tik, jende asko biltzen tzen! ballekoak? denok, erri guztietan, ta kanpoko parientek eta... Beño, errie betetzen tzen, jendes.

Arakilgo herrien izenak eta beren ustezko esanahiak (1986)

– Zein dira hamalau herri horiek?

Erroz, Urritzola, Izurdiaga, Aixkorbe, Irurtzun, Etxeberri, Etxarren, Ekai, Egiarreta, Zuatzu, Satrustegi, Villanueva, Yabar... ta Murgindeta; Murgindeta, naski? geo saldu in tzen. Carlos Eugi, Iruñeko... abeats batek eosi zun.

27 Bai hitz horren bukaera bai geroxeagoko *gauerdino*-rena ere bitxiak dira hemen, muga-adlatiboak *-año* baititugu ohiki Urritzola-Ihabarren.

– ‘Villanueva’ ez da bestela esaten?

Ireberri! bai... Urritzola? urriz, Urrizola?... esan nai men du: ‘urritz ola’; Erroz? ‘erri otz’; Izurdiaga? ‘zumetokie’, ‘miembrerá’; Irurtzun? ‘iru zulo’; Etxeberry or, cara a cara dagon erritto oi? ori, ‘casa nueva’, Etxeberry? ‘casa nueva’; gero, Egiarreta? ‘falda quemada’, men da, errea; ta Villanueva? Ireberri, ‘villa... villa nueva’ da ori; geo, Satrustegi? ‘almacén... almacén de sacos’, saten, esaten dute.

– ‘Zakutegi’ edo? (txantxa-punttu batekin esana).

Jejeje!... erri batzuk badute, e?

– Bai, eta Zuhatzu?

Zuatzu? ez, ez.

– Eta Ekai?

Ekai?... ‘bi ollo’ e... (ez zen ongi gogoratu).

– Eta Urritzola, zer da?

Urritz-ola, ‘avellano, tabla de avellano’.

Senitarteko batek utzitako ondarea (1987)

Jaikitxeai? etzion, eltze zar batzuk besteik etzion utzi, ta... pezeta zauzkinak? zerbitzeriei, ta nik, eltze aiek kargatzen eon nitzelai(k)? amorrat(u)ik, eltze asko artu? ta, aldameneko pareteai botatzen ta, an puskatzen nittun.

– Baina hasieratik kontatu behar duzu nor zen hura...

A! nor zen ura!... emengo, nee... attunan anaine (sic), itzen biar tzun-tä, bai; estudia-tzea juan tzen? ta, apeza atea tzen, ta destinotu [...] orrea, Oxinagara, ta, Osinagan, berroite zortzi urte pastu men zittun. Ta geo? gaizkittu zen, ta itxebak eskura zuten, diru asko, itxe asko moldatu zeen apeza bat ibiltzeaki? arren diruki. Ta, berak ee etzue arkittu, diru oi, beño gue itxea, jeikie, bee... aiten jeikitzeä? etzioten utzi... lau eltze zar besteik, dirue zerbitzeriei. Aittek esaten tzun, famili ore, ordueskeos, ongi bizi tzela, beño jaikitxeä? jodittuik! (barrez).

– ‘Jaikitxea’, e?

Jaikitxea, bai, la casa nativa era, bai, jai... jaioko itxa, jaikitxeä, bai.

Ganaduaz zerbait eta belarrak noiz bildu (1985)

Muñoeta atezten duu larraska, sanko ta, ganaduk pues ez zutela ya jaten, ta, negun bezela, itxetik jaten, itxean, itxeti maten, asi bearko dugu; neguko jana? ori, oain, fuer-te itorri bear du beste-, besteik? beño, aurtan ez, ez.

– Belarrak ongi bildu ziren bere garaian?

Bai, bere garaian bai, ongi ta asko.

– Noiz bildu ziren?

(Berriemailearen seme Inazio:) Belarra biltzeko denbora? pues sanfermiñetan! San Fermiñ egun... aurrexo.

Aurrexio; San Juanetik zer-, zeraño.

– Eta asko izan zen orduan...

Asko, asko izendu zen; ezin kabittu... safaien, ta sal... saldu bear izendu giñun kamion bat, itxean lekuik ez? ta...

Urritzolatik Ollora, mendiz, ordubete (1988)

– Behin kontatu zenidan, zu gazte zinelarik, alderdi haietako gizon bat bere mandoarekin etorri eta...

Bai, Ollokoa itzen biar tzu.

– Zuk, Irurtzongo feriara juaten zinenean, han ikusten zenuen?

Bai.

– Zein izen zuen?

Jesus Legarra.

– Eta zer izango zuen, zuk baino hogeitahi, hogeita hamar urte gehiago?

Oitamar o, ogei-ogeitamar, or, ortxe, bitterte ortaköa.

– Nondik etortzen zen?

Karreteras Irurzune, ta Irurzundik, emen bide tzar bat bazen, ta, onea; ta geo, askotan? mendi barna? Olloa joaten tzen.

– Bai? Mendi barna joaterik bada hemen?

Uu! oñes, emendik, karreteras? ta emendik, mendis? ni la mitad de la, denboan erdin, jua daitteke emendik; gora, goras... juneskeos? goittiko mendi artaa? bera, beño... beño? emendik karreteras, or, bide o, zar bat bazen, ta buelta aundiek ematen dee!

– Eta hemendik Ollora, oinez joateko, zenbat denbora behar da?

Oñes? ordu t'erdis bai. Menos, menos; ordu betes...

– Bidea garbi dago?

Ez, ez, bide garbirik ez, orduen bazen (...); mendiek zikindu dee? ta, or bazen pasa bat, del valle de Ollo, al valle de Arakil: Olarraiko Ataka²⁸ saten zioten, ta alleatu zeen, emen, Ekayen ta Satrustegin, millonarioak bazeen garai artan, ta, dirue prestatu? ta ebai tze kobratzea? eultzik in ondorian? mandoakin juaten tze.

– Zer egin ondorean?

Eultziik! kosetxari guztiek, ta, replikan, ta ango jendiak? garieki(n) ta, palaki ta [...].

Lapurreta-saio baten berri (1988)

Ta aldi betes, Ekaiko Urruntzeneko nausie? eldu men tzen bi mandokin, kargat(u) ik? eztakit, sei zaku edo zenbat, bi, bi mandoen tartian; ta, iru gizon, goittiko ataka artan? Olarraiko atak ortan atea? ta «Alto! ya dirue!». «Nik diruik etzauket, eztauket xentimoik eta». Unek²⁹, lapurrek artu men tzute.

– Zer?

Lapurrek esan men tzuten: «Este jodido... unek, zakuetan karko ttik, diruek». Ar, tzakuek eta, an, barra-barra-barra kanpoan. «Jo!... e! etzaukela!». Arrek? ure man tzuen kobratzea, beño, dirun partes? eman tzioten... gari ori, bai, [...], ta geo, ezin bildu? ta urrengo egunian? bi mutill artu? ta kari ori, biltzea jua men tze(n).

– Zer biltzera?

28 Hona *ei* > *ai* bilakaeraren adibide bat, geroxeago *Olarregiko* esan baitzuen berriemaileak.

29 Berriemaileak *onek* / *unek* eta *orrek* / *urrek* erabili zituen bere hizketaldietan, *u* hasierakoak gutxitan izanda ere.

Garie! baztar... dena barratu men tzuten, puh!... ixtoria atzuk, ta, asko die, asko kasu pasatu men tzee, ni beño lenago're, ta, atak ortan. Bide sendatik, bi mendi gora juntetzen dee, ta... pasan, erditze zen? iñun, iñor jendeikan etzabillen!... mala suerte, tokatzen balin bazaio? mala suerte.

Bai, Olarregiko Ataka, famosua... ta arrei? zein gerretan ee? ortik pasatu men tzen, Ollotik? Abderraman Tertzero... sekuleko konbatia? orrek ín omen tzun, ba alde atetik? ta, emendi beste at? ortik pasatu men tze, onea, Urrizolaa, ta Urrizolatik, Dos Hermanastzea? ta Dos Hermanasenetik... ya³⁰, Fraintzia pasatu men tzen, bai.

Plazaolako trenaz; lehenengoz (1991)

– Hemendik pasatzen zen?

Ez, Irurtzundik.

– Bai, baina hemendik ikusten zen?

Bai gizona! bai, arek eaman tzeen neri soldau Donostie!... sei pezta, kostatzen tzen, ida y vuelta, Donostitik. Gero, Loiolaa e juan nitzen, pi o iru aldiz? ba! lau txakurreki? bidejie iten giñun. Emendik... Andoaiñe juaten giñen, ta Andoaindik bera, tzea, Loiolaa, kasi... gastatu gae, bai. Bentaja bat kusten giñun guk; geo, etzula (b)ate ez... lenago ingresoik? kendu zute. Konke auto jarri zuten, Roncalesas eta oiek.

– Bai, gaizki zihoan harekin, konpetentzia harekin...

Eee! arek... etzun gastuëndako ebatzen tzien, Plazaolak etzun gastuëndako atra.

– Hori da, eta gainera uholde famatu hura, inundazioa, etorri eta harekin akabo...

Akabo, bai, bai. Iruñean inundazioa? la casa de... Zubibeltz, ta, gasto aundiik? akabo, bai. Beño, Irurtzunen? feri eun artan, jende guztie pozak!: «biar artio biar dute, trenbidëa itten, biar juxtu»; beste konbersazioik etze(n). In zuten ta, lau urte inguruko ta... etzela ez dena; nei? biajeik txarren-txarrena nere denboan in dutena? Iruñetik artu? ta, goizeko seietan atea giñen Iruñetik, ta, beatzitan o amarretan alleatu giñen Amarara.

Ta, Amaran jetxi? ta an, uelde baztarretik? Donostin gora juan giñen? ta geo, San Telmoa, sartu giñe. San Telmon tzezoan gue kuartel, gue errejimentue; Sicilia? an tzezoan, bai. Ta geo? Amaraa, e? eguneo etortzen giñen, zea, eztakit nola esaten ziote(n), uelde baztarre...

– Bai, Urumea.

Urumea, bueno, Urumea baztarretik? Amaraa, ta orr exkifei (?) ta, berriz atzea.

Plazaolako trenaz; eta bigarrenez (1991)

– Eta oroitzen zara Plazaolako trena zein herritan barrena pasatzen zen?

Bai, bai gizona! Iruñetik? lemixiko? Antsoaine; estrazioa (sic) batzun e, bueno, enpalme? Iruñen bat, Iruñen bi estazioak zittu: goitti? ta, emen, Errotxapea. Ta geo? Antsoain; Antsoaindik pastu? Berriplano? ortik? zea... Sarasa, urrengo estazioa? Sarasa, ta

30 Geroagoko kontraera batean igarobide honen euskal izena agertuko da: *Axita*. Eta gutun baten bidez ere, ustez 1989koa, berretsi zigun berriemaileak izen bera: *A las Dos Hermanas se le llaman por nombre «Asitarte», al molino que hay en aquel paraje 'Asitarteko errota'*.

Sarasan pastu? Erizetik barna?... Aixkorben? apeaderoa, tunelan auzko aldetik. Tune-
lak pasatu? dauden tunelek? Irurtzune estazioa. Ta, gero? Irurtzundik? Latasa; Latasa-
tik? urrena? Lekunberri!

– Baina, lehenago, Oskian barrena ez zen pasatzen?

Ez-ez-ez-ez! Oskia emen dago, ta... Aixkorbe?

– Egia da, bai, bai; beste aldetik, ezta?

Bai, beste aldetik, mendi orrån? Axitako alde, bai. Ta geo Lekunberri, Uitz, Leitza...
Geo, ortik aurrea, Andoañe juaten tzen? ta, Andoaindik, orko erri oiek bilduik.

– Bai, Lasarte eta...

Bai, Lasarte juaten tze, ta Lasartetik Amaraa, sartzen tzen, nekat(u)ik guztiek, e?

– Eta non bukatzen zen? Amaran?

Amaran, Amara; or beste linea at bazen, Bilbautik eldu zena.

– Bai, ferrocarriles...

Estrecho o...

– Bai, de vía estrecha, bai.

Ta besteak joaten tzeen? con, nola esaten tzioten? Fraitzie! nola esaten...?

– ‘El Topo’?

¡El Topo! bai; ore’re, ez? vía estrecha zen, bai.

– Aipatu duzun bide horretan leku aldapatsuak-eta baziren...

Bai, aldapak ta, bazeen...

– Eta nola ibiltzen zen aldapa horiek gaintzeko? kostatzen zitzaion?

Or, Leitze beño or leen? tunel bat aundie zauken! bai, eztakit zenbat kilometro...
jungo in zen; ta, tunela ailletzekeakin? aldapa etzen ya [...]. Ta geo, Leitzea jesteko?
tunela in tzuten, ta aldapa ori xingle gelditu ze. Leitzeko tunelak? eztakit, amalau kilo-
metro o... asko zittun! te sartzen tzen an ta illun-ilun-ilun bulkata, juaten tzen aurrea.
Geo, andik? puxkak o obenean bazeen... bi o ire (sic) erri. Batean? gau, eun betes? nik
pentsatu, gue tierrako jendie, bakizu, ta, zentral batëan? Arbizu, Arbizuko laun bet?
enpleatuik zeola, ta an estazioa kusi nun; badakizu, ez naiz akordatzen! ze izen tzun,
ta, estazio arrek, beño, ya vimos cuáles eran. Ta, trenald³¹ geldittu zen denboan.

– Hor, Gipuzkoa aldean, Leitzarango bidean, bazen Olloki izeneko baserri bat...

Olloki! bai, an, an, Olloki? ta geo, beste at ee bazen, Andoañe beño len?... eztaitt e!

– Bertxin izeneko leku bat ere bada, eta Amaraun baserria, Leitzatik aski hurbil...

Ez, Amaraun ez; Olloki, ta...

